

BERDINTASUNA

Emakume eta Gizonen II Berdintasun
Planaren ebaluaketa eta diagnostikoa 2021



Murgibe



Lezoko Unibertsitateko Udala



EMAKUNDE
EMAKUNEAREN ELISKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

| | | |
|----|---|-----------|
| 1. | Lezo zifretan | 2 |
| 2. | Lan-prozesua | 19 |
| 3. | Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioaren emaitzak | 24 |
| 4. | Hurrengo planerako proposamenak | 52 |
| 5. | Ondorioak | 56 |

1.LEZO ZIFRETAN

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik desberdintasun eta behar posibleak ikusteko asmoz, Lezoko populazioari buruzko sexuaren arabera banandutako datu batzuk adieraziko dira, datu sozio-demografikoak, lan-merkatukoak, ekonomia edota udal mailakoak nagusiki.


Populazioa

Lezo Gipuzkoako udalerrri bat da, Oarsoaldea eskualdean dago kokatuta, Gipuzkoako ipar-ekialdean dagoen eskualdean, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriarekin batera.

6.103 biztanle ditu. Hauetatik 3.046 (%49,9) emakumeak dira, eta 3.057 (%50,1) gizonak. (Estatistika Erakunde Nazionala: Erroldaren berrikuspena 2020)

Lezoko egitura demografikoa jarraian dagoen biztanleria piramidean dago aurkeztuta.

BIZTANLERIA PIRAMIDEA



Iturria: Estatistika Erakunde Nazionalaren Errolda Jarraitua (2020ko urtarrilaren 1eko datuak)

Biztanleria-piramideen oinarritzko tipologiaren arabera, Lezokoa atzeranzko piramidea da, erdiko gorputza baino oinarri estuagoa baitu, eta adineko pertsonen ehuneko handi samarra, nahiz eta desberdintasun hau normalean bezain agerikoa ez izan.

Piramide hau gizarte industrializatueta oso ohikoa da. Hauetan bizi itxaropena oso altua da eta zaharkitzerantz joera handia dago honen hazkunde naturala murriztua den heinean.

Datu hauek oinarrian hazkunde txiki bat islatzen dute (0-10 urte arteko biztanleria tarte), azken urteetan jaiotza gehiago egon direnaren adierazle. Horretaz gain, emakume zein gizonen kasuan, 40-64 urte arteko populazioan kontzentrazio handiagoa dagoela ikus daiteke.

| | Urtea | Udalerrria | Eskualdea | Gipuzkoa | EAE |
|---|-------|------------|-----------|----------|-------|
| Haurtzaroaren indizea: 0 eta 14 urte bitarteko populazioa (%) | 2020 | 13,80 | 13,04 | 14,08 | 13,55 |
| Zahartzearen indizea. 65eko eta urte gehiagoko populazioa (%) | 2020 | 18,34 | 23,10 | 22,45 | 22,49 |
| Zahartze handiaren indizea. 75eko eta gehiagoko populazioa (%) | 2020 | 7,44 | 11,47 | 11,12 | 11,29 |
| Jaiotza tasa gordina (‰) | 2019 | 7,07 | 6,84 | 7,11 | 7,00 |
| Kanpoko migrazio kitapena (‰) | 2019 | - 1,15 | 8,52 | 7,46 | 8,84 |
| Hazkunde tasa begetatiboa (‰) | 2019 | - 2,14 | - 2,89 | - 2,39 | -2,81 |
| Atzerriko populazioa (%) | 2020 | 4,74 | 7,82 | 8,29 | 8,12 |

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea

Aurreko taularen indizeek eskualdearen eta komunitatearen antzeko datuak erakusten dute, hiru ezberdintasun nagusi atzematen diren arren. Batetik, zahartze handiaren indize baxuenak ikus ditzakegu udalerrian eta bestetik, kanpoko migrazio kitapenaren eta atzerriko populazioaren zifrak nabarmen txikiagoak dira.

Atzerriko populazioak Lezoko populazio guztiaren %4,74a irudikatzen du (guztira 289: 140 emakume eta 149 gizon), EAEn (%8,12) eta Gipuzkoan (%8,29) baino ehuneko txikiagoa.

Biztanleria hau sexuaren arabera desberdintzen bada, %48,4 emakumeak eta %51,6 gizonak dira.


Bilakaera aztertuz, 2009ko datuen arabera, atzerriko populazioa %2,57koa zen, eta hurrengo urteetan, gora-behera txikiekin bada ere, apurka apurka igotzeko joera ikus daiteke.

LEZOKO ATZERRIKO POPULAZIOAREN BILAKAERA (%)

| 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|------|------|------|------|------|------|
| 3,02 | 3,71 | 3,90 | 3,72 | 4,44 | 4,74 |

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea

1. GRAFIKOA: ATZERRITAR POPULAZIOA SEXUAREN ARABERA (%)




Iturria: Estatistika Erakunde Nazionala: Errolda jarraituaren estatistika 2020

Atzerriko populazioa herrialde ezberdinetatik heltzen da Lezora. Orokorrean, atzerritar gehienak Amerikatik datoz, guztien %40,1, hala ere, aipatzekoa da ezberdintasun handia ikusten dela emakumeen eta gizonen jatorrietan. Gizonen kasuan gehienak Europa eta Afrikatik datoz, baina Amerikatik etorritakoen kopurua handia da ere. Emakumeen kasuan,

aldiz, Amerika nabarmentzen da, nahiz eta Europa eta Afrikatik etorritakoak dauden ere. 2013an, sexuen artean bereizketarik egin gabe, Amerika eta Europa gailentzen ziren, eta herrialdeei dagokienez jatorri nagusiak Maroko eta Errumania ziren.


2. GRAFIKOA: ATZERRIKO POPULAZIOA SEXU ETA JATORRIKO KONTINENTEAREN ARABERA- TALDE OROKORRAK



Iturria: Erakunde Nazionala: Errolda jarraituaren estatistika 2020

Interesgarria da jatorrietan gehiago zehaztea. Jarraian jatorrien talde orokor nagusietan herrialdeen zehaztapena.

3. GRAFIKOA: ATZERRIKO POPULAZIOA SEXU ETA JATORRIKO HERRIALDEAREN ARABERA- TALDE OROKORRAK



Iturria: Erakunde Nazionala: Errolda jarraituaren estatistika 2020

Ikus daitekeenez, 2013ko joera mantentzen da. Maroko eta Errumania gailentzen dira jatorrietan, eta emakumeen kasuan, Kolonbia, eta gizonenean, Portugal, handitzen ari dira. Aipatzekoa da ere, orokorrean jatorri anitz identifika ditzakegula Lezoko atzerriko populazioan, emakume zein gizonen kasuan. Ozeaniaren dagokionez, ez da inor erroldatu.

Informazio hau, adierazle berdinak badaude, Lezoren erreferentziazko bi udalerrirekin alderatuko da, biztanle kopuruari eta hurbiltasunari dagokionez duten antzekotasunagatik, hain zuzen ere Astigarraga eta Urnieta. Lurralde historikoko eta EAEko informazioarekin ere alderatuko da.

Lehenik eta behin, 2015eko abenduko datuak bildu dira, jarraian egungo datuekin konparaketa egiteko. Kontutan hartu behar da datu berrienetan Covid-19aren eragina aurki dezakegula, beraz 2020ko urtarrila eta 2021eko martxoko datuak aurkezten dira. Langabezi indizearen joera aztertzeko 2020ko datuak hartuko dira kontutan, hala ere, krisiaren eragina ere aztertuko da. Lanbiden argitaratutako langabezia indize berrienari (2021eko martxoa) erreparatuz, Lezoko biztanleriaren langabezia-tasa %10ekoa da.

LANGABEZI INDIZEA (2015 abendua – 2020 urtarrila – 2021 martxoa)

| 2015 (ABENDUA) | GUZTIRA | Emakumeak | Gizonak | Genero arraila |
|--------------------|---------|-----------|---------|----------------|
| EAE | 14,1 | 15,7 | 12,6 | 3,1 |
| Gipuzkoa | 11,8 | 13,5 | 10,2 | 3,3 |
| Lezo | 11,0 | 12,2 | 9,8 | 2,4 |
| Astigarraga | 9,4 | 10,5 | 8,3 | 2,2 |
| Urnieta | 9,7 | 11,0 | 8,6 | 2,4 |

Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

| 2020 (URTARRILA) | GUZTIRA | Emakumeak | Gizonak | Genero arraila |
|--------------------|---------|-----------|---------|----------------|
| EAE | 11,0 | 12,8 | 9,3 | 3,5 |
| Gipuzkoa | 8,9 | 10,5 | 7,3 | 3,2 |
| Lezo | 8,9 | 11,3 | 6,7 | 4,6 |
| Astigarraga | 6,8 | 8,1 | 5,5 | 2,6 |
| Urnieta | 6,6 | 8,8 | 4,7 | 4,1 |
| 2021 (MARTXOA) | GUZTIRA | Emakumeak | Gizonak | Genero arraila |
| EAE | 12,1 | 13,6 | 10,6 | 3 |
| Gipuzkoa | 9,9 | 11,3 | 8,5 | 2,8 |
| Lezo | 10,0 | 11,0 | 9,1 | 1,9 |
| Astigarraga | 6,8 | 8,4 | 5,2 | 3,2 |
| Urnieta | 8,0 | 10,0 | 6,0 | 4 |

Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.


2015eko datuekin alderatuz gero, azken 5 urteetan langabezia-indizeak behera egin du, 2021eko martxoan gorakada handi bat nabarmentzen delarik. 2015ean, Lezon langabezia indizea %11,0koa zen, eta gaur egun indize hori %10,0koa. Datuak emakumeen eta gizonen artean konparatuta, Lezon, 2015ean, langabeziarekiko genero arraila 2,4koa zen gizonen alde (hau da, emakumeek zuten langabezia indize handiagoa gizonek baino). 2020ko urtarrilean arraila dezente handitu zen eta ostean, Covid-19aren krisiak eragin ondoren, 2015ean baino zifra txikiagoa ikus daiteke. Arraila 4,6ra igo zen 2020 urte hasieran eta azken datuaren arabera, gaur egun arraila 1,9koa da. Arraila murriztu da gizonen langabezia handitu delako, emakumeen indizea antzeko mantentzen dela ikusten da eta. Eraitza nagusiak Gipuzkoan ematen direnekin bat datoz eta Erkidegoan baino baxuagoak dira. Herrien konparaketan Astigarrak du langabezia batez besteko txikienak.

Bestalde, LANBIDEk eskainitako datuen arabera, 2020an zehar 1.671 lan-kontratu gauzatu ziren Lezon. Hauetatik %44,2 emakumeentzako izan dira eta %55,8 gizonezkoentzat, hau da, kontratuen erdia baino apur bat gehiago gizonei dagozkie.

Adinari dagokionez, ikus daiteke emakumeen kasuan adin tartean ezberdintasunak gizonenean baino lausoagoak direla. Bi kasuetan, gazteenak dira kontratu gutxien jasotzen dituztenak, emakumeen kasuan 55 urte baino nagusiagoak ere nabarmenduz. Orokorrean, emakumeen kontratazio baxuagoa ikus daiteke eta orokorrean gehien kontratatuak 35 eta 54 urte artekoak dira.

4. GRAFIKOA: KONTRATAZIO KOPURUA ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA


(2020)



Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Prestakuntza-mailari dagokionez, "Batxilergoko" ikasketa-maila duten pertsonari egin zaizkie lan-kontratu gehien, orokorrean. Maila txikiagoan bada ere, badaude beste maila batzuetako ikasketak dituztenak, unibertsitatekoak eta Lanbide Heziketakoak alegia, kontratu kopuruari dagokionez hurrenez hurren aipatuak. Kontutan hartuta gizonezkoen kontratu gehiago egin zaiela, ez dago bien joeretan aipatzeko moduko desberdintasunik. Hala ere, maila "ezezaguneko" ikasketak dituztenen kopurua aipagarria da.

5. GRAFIKOA: KONTRATATUTAKO PERTSONAK IKASKETA-MAILA ETA SEXUAREN ARABERA (2020)



Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Kontratuen modalitatea kontutan izanik, gehienak aldi baterako dira.

Modalitate honetan hain kontratazio kopuru handia egoteak honakoak pentsarazten ditu: iraupen laburreko kontratuak direla, ez dutela lan-egonkortasunik eskaintzen eta emakumeen enpleguaren behin-behinekotasuna eta ezegonkortasuna iraunarazten dutela.

Bestalde, kontratuen gehiengoa lanaldi partzian gauzatzen da.

EMAKUME ETA GIZONEN KONTRATU KOPURUA ETA MOTA (2020)

| mota | Emakumeak | Gizonak |
|--------------------------|-----------|---------|
| Mugagabeak | 115 | 255 |
| Aldi baterako | 624 | 677 |
| Lanaldi osoa | 255 | 116 |
| Lanaldi partziala | 484 | 816 |

Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Hurrengo taulan ikusten da emakumeen jarduera-tasa txikiagoaren joerari eusten zaiola. Hala ere, arraila murriztuz doa.

JARDUERA-INDIZEA

| | 2019 | | 2011 | | 2001 | |
|--------------------|-----------|---------|-----------|---------|-----------|---------|
| | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak |
| LEZO | 51,23 | 53,95 | 49,08 | 56,11 | 40,21 | 61,06 |
| ASTIGARRAGA | 56,04 | 58,30 | 51,92 | 57,47 | 47,89 | 65,04 |
| URNIETA | 48,75 | 55,26 | 48,86 | 55,08 | 37,91 | 55,54 |
| GIPUZKOA | 45,42 | 51,33 | 43,75 | 52,70 | 38,52 | 57,77 |
| EAE | 45,44 | 51,36 | 43,87 | 53,14 | 37,40 | 56,74 |

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Ondoren, okupazio-indizea aurkezten da. Argitaratutako datu zaharrenak 2001ekoak dira, eta testuinguru ekonomiko eta soziala aldatu direla kontutan hartuta, datuak ezin dira gaur egunera estrapolatu. Era informatiboan besterik ez dira azaltzen.

16 URTE BAINO NAGUSIAGOA DEN POPULAZIOAREN OKUPAZIO-INDIZEA (%)

| | 2019 | | 2011 | | 2001 | |
|--------------------|-----------|---------|-----------|---------|-----------|---------|
| | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak |
| LEZO | 53,69 | 59,81 | 50,39 | 58,47 | 41,41 | 65,23 |
| ASTIGARRAGA | 60,80 | 70,36 | 56,54 | 64,93 | 48,20 | 78,82 |
| URNIETA | 52,70 | 62,00 | 49,82 | 61,36 | 39,12 | 60,45 |
| GIPUZKOA | 47,87 | 56,53 | 44,11 | 54,72 | 38,24 | 62,09 |
| EAE | 46,47 | 55,03 | 42,92 | 53,56 | 35,83 | 59,66 |

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

2001ean, Lezoko emakumeen okupazio indizea %41,41ekoa zen, eta gizonena %65,23koa. Bi sexuen artean %23,82ko arraila zegoen. 2019ko (azken kalkulu ofiziala) datuak ikusita, agerikoa da azken urteetan arrailaren joera beheranzkoa izan dela, 6,12ra heldu den arte.

Arraila txikitzearen joera hori Gipuzkoa eta EAEko datuetan zein erreferentziako udalerrietako datuetan ere ematen da. Nabarmentzekoa da Lezoko egoera hoberena dela EAE, Gipuzkoa, Astigarraga eta Urnietarekin alderatuta, izan ere, sexuen arteko arraila txikiena agertzen du. Bereizketa alde batera utzita, okupazio indize handienak agertzen dituen da, emakumeen zein gizonen kasuan, Astigarraga soilik aurreratuz.

Lan Sektoreak

Lezoren industria-garapenaren hasiera XIX. mendean izan zen. 1950az geroztik, Francoren diktadura garaian, industrializazioa asko azkartu zen, eta probintzia eta estatu mailako migrazio uhin handia eragin zuen. Ondorioz, herria asko hazi zen.

Datuak sexuaren arabera bereizita ez badaude ere, jarduera-sektoreen arabera ikusten da zerbitzu-sektoreak duela okupazio-ehuneko handiena (%74,88), Astigarragaren ostean, konparatutako zonalde guztietan zifra altuena adieraziz. Gainera, aipatzekoa da ere nekazaritzan okupazioaren ehuneko oso baxua jasotzen dela, alderatutako lurraldeekin alderatuta, baxuena. Eta aldi berean, Eraikuntzaren sektoreak hartzen dituen okupatuaren ehunekoa altuenetakoa dela.

16 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA OKUPATUA, SEKTOREEN ARABERA (%). 2019

| | NEKAZARITZA | INDUSTRIA | ERAIKUNTZA | ZERBITZUAK |
|--------------------|-------------|-----------|------------|------------|
| LEZO | 0,37 | 16,97 | 7,77 | 74,88 |
| ASTIGARRAGA | 1,06 | 16,79 | 6,68 | 75,47 |
| URNIETA | 1,47 | 21,05 | 8,01 | 69,47 |
| GIPUZKOA | 0,95 | 22,04 | 5,37 | 71,64 |
| EAE | 1,07 | 18,67 | 5,61 | 74,64 |

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Hurrengo taulan sektore bakoitzeko establezimenduen ehunekoa agertzen da, eta zerbitzuen sektorea nabarmentzen da berriz ere. Hala ere, Industria sektorea esanguratsua da eta garrantzitsua da sektore hauetan emakumeen presentzia sustatzea, ordezkari gehienak gizonak baitira.

SEKTORE BAKOITZEKO ESTABLEZIMENDUEN EHUNEKOA GUZTIZKOAREN GAINEAN

2020AN (%)

| | NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA | INDUSTRIA | ERAIKUNTZA | ZERBITZUAK |
|--------------------|---|-----------|------------|------------|
| LEZO | 2,70 | 17,15 | 20,81 | 59,34 |
| ASTIGARRAGA | 2,82 | 18,18 | 15,23 | 63,75 |
| URNIETA | 6,18 | 11,55 | 16,14 | 66,14 |
| GIPUZKOA | 3,33 | 7,66 | 11,79 | 77,23 |
| EAE | 3,63 | 6,55 | 11,72 | 78,10 |

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Populazioaren errenta pertsonal osoari buruzko datuen arabera, orokorrean esan daiteke grafikoa ikusita, Lezon jasotzen dela errenta pertsonal baxuenetakoa, guztira, gainontzeko zonaldeekin alderatuta. Guztietan ematen da emakumeek errenta baxuagoak izateko joera, aztertutako eremu guztietan arraila handi xamarra da. Lezon %36,9ko errenta-arraila dago, hau da, alderatutako eremuetan erdiko puntu baten kokatutako arraila, hain zuzen ere, 8.768€-koa.

ERRENTA PERTSONAL GUZTIRA € (2018)

| | Emakumeak | Gizonak | Arraila |
|--------------------|-----------|----------|---------|
| EAE | 16.416 € | 26.930 € | % 39,04 |
| Gipuzkoa | 17.459 € | 28.100 € | % 37,9 |
| Eskualdea | 18.436 € | 27.952 € | % 34,04 |
| Lezo | 14.969 € | 23.737 € | % 36,9 |
| Astigarraga | 18.413 € | 28.528 € | % 35,5 |
| Urnieta | 14.923 € | 26.138 € | % 42,9 |

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) jasotzen duten pertsonen datuak erreferentziatzen hartuta, aztergai dugun udalerrian, gainontzeko guztietan bezala, emakumeek jasotzen

dute gehiago. Aipatu behar da Lezon ikusten dugula DBE jasotzen dutenen zifra txikienetakoa gizonen kasuan, eta aldiz, altuenetakoa emakumeen kasuan. Horrek aldea aztertzeraz garrantzitsua da, eta hain zuzen ere, konparatutako zonalde guztiekin alderatuta, Lezon aurkitzen da DBE jasotzen dutenen ehunekoen alde handiena (9,24), emakumeak gehiago izanik.

DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA % (2020)

| | Emakumeak | Gizonak |
|--------------------|-----------|---------|
| EAE | 27,95 | 21,17 |
| Gipuzkoa | 20,68 | 15,67 |
| Lezo | 21,34 | 12,10 |
| Astigarraga | 14,49 | 9,22 |
| Urnieta | 15,27 | 13,19 |

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Beste datu batzuk

Antolaketa politikoa


Udal mailan, 13 politikaririk alkatea gizona da, eta 5 emakume eta 7 gizon zinegotzik osatzen dute udalbatza, hots, %38a dira emakumeak, 4/2005 legeak ezarritako %40tik oso gertu. Horren barruan, gobernu batzordea bost pertsonak osatzen dute, 4 gizon eta emakume batek, hau da, %20, legeak aipatutako batez bestekotik oso urrun, hain zuzen ere.

Gainera, kontutan izan behar da ere Udalaz kanpoko ordezkariak daudela 7 erakundetan (Añarbeko Uren Partzuergoa, Sanmarko Mankomunitatea, Behemendi, Oarsoaldea, Euskal Fonda, Eudel eta Udalbiltza). Hauetatik hiruk daukate emakume bat titular bezala (%42). Bigarren titular edo ordezkari bezala, ez da emakume bat ere agertzen.

Azkenik, beharrezkoa da hauteskundeetan emakume eta gizonen hautaketan bilakaera aztertzea. Zentzu honetan, garrantzitsua da aipatzea, 2005ean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legea onartu zen (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa), eta haren 3. artikuluko 7. apartatuan ordezkariak

orekatua izateko beharra azaltzen da: "Euskal herri-aginteeek neurri egokiak hartu behar dituzte erabakiak hartzeko eremu guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko. Lege honen ondorioetarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatu dagoela ulertuko da sexu biek gutxienez % 40ko ordezkariak dutenean".

Kargu politikoen bilakaera Lezon, hauteskunde urtearen arabera



Grafiko honetan ikusten den bezala, Lezoko kargu politikoen ordezkariak aldakorra izan da haien sexuaren ikuspegitik. 2003. urtean, ordezkariak 38/62 zen, eta ondorengo urteetan, emakumeen proportzioa Legeak gomendatutako 45/55 kopurura iritsi da. Azken bi legegintzaldietan, sexuaren arabera adierazgarritasun-balantzea % 38 eta % 62 artekoa izan da, 2003an bezala, eta beraz, Berdintasunerako Legeak ezartzen dituen zifretatik apur bat aldentzen da.

Zerbitzuak

Garrantzitsua da aipatzea Lezoko udaleko berdintasun zerbitzua. Lan arlo ezberdinak ditu, maintreaming-arekin (genero-ikuspegiaren zeharka txertatzea) eta emakumeentzako eta indarkeria matxistaren kontrako politika espezifikoekin lotutakoak, horien artean Udaleko Berdintasun Planaren kudeaketaz arduratzen dena, indarkeria matxistak kaltetutakoaren arreta protokoloaren eta indarkeria matxistekiko erantzun protokoloen sustatzea, jabetze ekimenak, indarkeriari aurre egiteko baliabide bezala autolaguntza taldearen koordinazioa, eta horretaz gain sensibilizazio eta informazio kanpainak antolatu (Martxoak 8, Azaroak 25, Mendekosteak eta Santa Krutzak) eta Gaxuxa emakume taldearen hitzarmena kudeatzen du sailak, besteak beste. Zerbitzu honetatik jaietako protokoloa egin eta plazaratu da eta jostailu ez sexisten aldeko kanpaina egin izan da ere. Halaber, 2017an Jai

parekideak egitasmoa koordinatu zuen sailak, eskualdeko beste herriekin abiatutako egitasmoa, hain zuzen ere.

Horretaz gain hurrengo **zerbitzuak** daude Lezon:

- Euskara Zerbitzua
- Gizarte Zerbitzuak (emakumeei zuzendutako zerbitzuak barne)
- Informazio-bulegoa
- Liburutegia
- Tomas Garbizu Musika eskola
- Udaltzaingoa
- Hirigintza, obrak eta zerbitzuak
- Hondakinen Bulegoa
- Idazkaritza
- Ingurumena
- Kirola
- Kultura
- Ogasuna
- Lezoko Herri Eskola
- Pasaia-Lezo Lizeoa: Lezoko Ikastola
- Haurtxo Haurreskola
- Alzate igerilekua
- Bekoerrota Kiroldedia
- Plazeta futbol zelaia
- Gezala Auditorium
- Kultura aretoa
- Ludoteka
- Oroitzene AEK Euskaltegia

Zerrendatuta dauden zerbitzu batzuek arduradun politikoak eta teknikoak dituzte. Hona hemen ardura hauen banaketa sexuz

| ZERBITZUA | ARDURADUN POLITIKOA | ARDURADUN TEKNIKOA |
|----------------------------------|------------------------|-----------------------|
| Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak | Gizona | Gizona |
| Berdintasuna | Gizona | Emakumea |
| Euskara | Gizona | Gizona |
| Gizarte Zerbitzuak | Emakumea | Emakumea |
| Hondakinen Bulegoa | Emakumea | Emakumea |
| Idazkaritza | Gizona | Gizona |
| Ingurumena | Gizona | Emakumea |
| Kirola | Gizona | Gizona |
| Kultura | Gizona | Gizona |
| Ogasuna | Emakumea | Emakumea |

Esan bezala, ardura banaketa hau ikusita, ikusgarria da 10 zerbitzutik soilik 3 daudela guztiz emakumeen ardurapean, izan politikoki edo teknikoki. Bestalde, zenbakiak begiratu baino, garrantzitsua da aztertzea zeintzuk diren konkretuki zerbitzu horiek. Azken finean emakumeen esku gelditu diren zerbitzuak historikoki esleitu zaizkien rolei erantzuten dizkiete. Hitz gutxietan esanda, jendartean gauzatzen den eredia errepikatzen da Lezoko udaletako sailetan. Historikoki prestigioa/sona izandako esparruak (hirigintza, kontuhartzailletza, kultura, kirola...) teknikoki gizonezko buru bat dute, maskulinizatutako sailak dira, eta, aldiz, emakumezkoen ardura dira, hots, feminizitatuta daude, ezinbestekoak diren baina oraindik ere aitortpena jaso ez duten bi sail, berdintasuna eta gizarte zerbitzuak kasu. Zentzu horretan, aurrerapausoa da modernizazio eta berrikuntza arloan hasitako teknikaria emakumezkoa izatea.

Bestalde, giza-baliabideei dagokienean eta berdintasun saila beste sail batzuekin alderatuz gero, ikus daiteke berdintasuna dela pertsona bakarrez osatutako sail bakarra eta lanaldi-erdian diharduen udaleko sailburu bakarra da berdintasun teknikaria, atentzioa ematen duen gauza, izan ere, teknikariak egiteko zabala eta lan-karga handia du. Berdintasuna zeharkako arloa da eta berdintasun teknikariaren ardura da sail guztiekiko koordinazioa. Honenbestez, deigarria da sailak espazio-bulego propiorik ez edukitzea.

Udal langileak

Langileei dagokienez, udalean 63 langile daude, horietatik 32 gizon (%51) eta 31 emakumeak (%49) dira.

Orokorrean plantilla orekatua ematean duen arrear, beste erakundeetan gertatzen den moduan genero-ezberdintasunak berehala azaleratzen dira. Esaterako, sail eta zerbitzu maskulinizatuak daude: brigada, udaltzaingoa, euskara, kirola, kultura edota musika eskola eta beste muturrean gizarte zerbitzuak egongo lirateke, guztiz feminizatuta.

| Saila | Emakumeak | Gizonak |
|--------------------------------|-----------|----------|
| IDAZKARITZA | 3 | 2 |
| KONTUHARTZAILETZA | 4 | 1 |
| HIRIGINTZA | 4 | 2 |
| BRIGADA | 0 | 8 |
| GIZARTE ZERBITZUAK | 9 | 1 |
| EUSKARA/KULTURA/KIROLAK | 1 | 4 |
| UDALTZAINGOA | 2 | 5 |
| ALKATETZA | 3 | 0 |
| MUSIKA ESKOLA | 5 | 9 |
| | 31 (%49) | 32 (%51) |

Bestalde, lan-postuen sailkapena sexuarekin gurutzatuz gero ere, genero-ezberdintasunak azaleratzen dira. Bai A1 eta A2 sailkapenetan gizonezkoak dira nagusi. Hortik aurrera sailkapenean zenbat eta beherago egin, orduan eta gizon gutxiago. Hala, C1 sailkapenean emakumeak gizonak baino bi halako dira. Kristalezko sabaia eta diskriminazio horizontala begibistan ere.

Beste horrenbeste esan daiteke lan-egorkontasunari dagokionez ere, izan ere, emakumezkoak karrerako funtzionarioen %41a dira (%59 gizonak) eta interinoen %62a (%38 gizonak).

Joera errepikatu egiten da lanaldiari erreparatuz gero ere, izan ere, lanaldi partzialetan (edo lanaldi ez osoan) ari diren gehienak emakumeak dira %56 (%44 gizonak). Zentzu horretan aipatu beharra dago egoera horretan dauden gizonezko guztiak Musika eskolan ari direla, eta sail horrek bere berariazkotasuna duela, izan ere, bertan diharduten guztiak emakumezkoak (5 lagun) eta gizonezkoak (9 lagun) %25 baino gutxiagoko lanaldian ari dira.

Lezo Berdintasuna 2021


Beraz, musika eskola sailkapen horretatik kenduta, udalean lanaldi partzialetan ari diren guztiak emakumeak dira (hirigintza-ingurugiroa, gizarte zerbitzuak eta berdintasuna).

2.LAN PROZESUA

Lan prozesu parte-hartzailea eta herritar guztiei irekia jarraitu da, landutako dokumentuak maila tekniko, politiko eta herri mailan egiaztatuak izanez.

Proiektuan parte hartutako pertsonen kopurua hurrengoak izan da: **192 pertsona 106 emakume eta 84 gizon.**

Metodologiak teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak konbinatu ditu. Prozesu metodologikoa hurrengoak izan da:



Prozesu hau gainbegiratzeko, talde eragile bat izendatu da, udal ordezkari ezberdinek osatuta, lana planifikatzeko eta ebaluaketa, diagnostiko eta planaren emaitzen aurre-contrastea egiteko. Hurrengoak osatzen dute talde eragilea

1. Jesus Mari Martiarena Jaca. Alkatea
2. Xabier Loiola Aristi. Idazkaria

3. Dami Muñoz Boza. Gizarte Zerbitzuetako arduraduna
4. Joxe Mari Iraola Aranzadi. Euskara teknikari
5. Miren Ormazabal Urkizu. EH Bilduko zinegotzia
6. Ainhoa Irazu Ibañez. Berdintasun teknikaria

Erabilitako teknikak hauek izan dira:

ELKARRIZKETAK

Zazpi elkarrizketa burutu dira.

Alde batetik, interseksionalitatea sustatzeko emakume ezberdinen ekarpenak jaso dira hurrengo elkarrizketetan:

1. Indarkeria matxista jasandako emakumea
2. Emakume transexuala
3. Baserritarra
4. Aniztasun funtzionalduna

Bestalde, elkarte eta gizarte arloko eragileen aportazioa jaso da ere hurrengo elkarrizketetan:

1. Itziar Arana GIZARTE LANGILEA
2. M^a Carmen Irazu CÁRITAS
3. M^a Luisa Sarasola AITON-BORDA

GALDETEGIAK

Online eskuragarri egon den eta etxez etxe bidalitako galdetegi baten bidez herritarren iritzia eta beharrak jaso dira.

Guztira 13 galdetegi jaso dira: 10 emakume eta 3 gizon

Bestalde, gazteei zuzenkatutako inkestak diseinatu dira. Guztira 81 erantzun jaso, dira 49 emakume, 43 gizon eta 2 ez binario.



TALDE DINAMIKAK

Politikari, langile, herriko eragile, elkarteekin eta Lezo Institutuko DBH4ko gazteekin, zortzi talde dinamika burutu dira. Hauetan, Lezoko II. Berdintasun Planaren ardatz eta helburu nagusiak azaldu ostean aurreko planaren balorazioa eta hurrengo planerako iritziak eta proposamenak jaso dira.

Ordu biko dinamikak egin dira eta guztira 91 pertsonen parte hartu dute 50 emakume eta 41 gizon.

Gazteen kasuan, 3 talde egin dira eta bakoitzarekin, 45 minututan, bost gairen inguruan hausnartu dute, hau da, emakumeen jabekuntza, Indarkeria matxista, ikasketak eta lanbideak, erantzukidetasuna eta zaintza eta aniztasun sexuala, egungo egoera zein den azaltzeko eta zer egin daitekeen berdintasunaren ikuspegitik hobetzeko.

| | Emakume | Gizon | Guztira |
|---|---------|-------|---------|
| UDAL LANGILEAK (SAILARTEKO KOORDINAKETA BATZORDEA) | 3 | 6 | 9 |
| POLITIKARIAK | 4 | 4 | 8 |
| EUSKARA, KULTURA, KIROLA ELKARTEAK | 2 | 3 | 5 |
| EMAKUMEAK | 6 | | 6 |
| HEZKIDETZA MAHAIA | 5 | 3 | 8 |
| INSTITUTUKO GAZTEAK DBH4 (3 TALDE) | 30 | 25 | 55 |
| Guztira | 50 | 41 | 91 |

UDAL LANGILEAK

DATA: 2021eko maiatzaren 17an osteguna, 9:30tan udaletxeko batzar aretoan

PARTE HARTZAILEAK: 3 emakume eta 6 gizon

1. Joxe Mari Iraola (Euskara teknikaria)
2. Xanti Val (kultura saileko arduraduna)
3. Aitor Iztueta (hirigintza)
4. Dami Muñoz (Gizarte zerbitzuetako burua)
5. Xabier Loiola (Idazkaria)

6. Arkaitz Angiozar (Kirol teknikaria)
7. Igor Ugarte (Udaltzainburua)
8. Gurutzeta Sorondo (Modernizazio eta berrikuntza teknikaria)
9. Ainhoa Irazu (Berdintasun teknikaria)

POLITIKARIAK

DATA: 2021eko maiatzaren 13an osteguna, 10:00tan udaletxeko batzar aretoan

PARTE-HARTZAILEAK: 4 gizon eta 4 emakume

1. Laura Martínez EAJ
2. Irlentz Ortega EAJ
3. Jon Pombar EAJ
4. Laura Muñoz EAJ
5. José Ángel Sánchez PSE
6. Mireia Cuesta EH BILDU
7. Miren Ormazabal EH BILDU
8. Mikel Arruti EH BILDU

EUSKARA, KULTURA, KIROLA ELKARTEAK

DATA: maiatzaren 24ean astelehena, 19:00tan udaletxeko batzar aretoan

PARTE HARTZAILEAK: 2 emakume eta 3 gizon

1. Imanol Sorondo: Lezo Institutua
2. Aitor Galvez: Ikastolako Guraso Elkarte
3. Joxemi Garmendia: Arkirun Pilota Kluba eta Ixkulin Elkarte Gastronomikoa
4. Carmen Elorza: Xoxolur Mendi Kluba
5. Maialen Pikabea: Gotti Betti gazte elkarte (Piztu Lezo)

EMAKUME ELKARTEAK

Lezo Berdintasuna 2021

DATA: maiatzaren 25ean asteartea, 18:00tan udaletxeko batzar aretoan

PARTE HARTZAILEAK: 6 emakume

1. Lezoko Emakume Taldea: Garbiñe Lozano, Aitziber Zinkunegi, Deiene Ziganda
2. Gaxuxa: Pepi Etxegoien, Lourdes Isasi
3. Berdintasun teknikaria: Ainhoa Irazu

HEZKIDETZA MAHAIA

DATA: maiatzaren 27an osteguna, 09:00tan udaletxeko batzar aretoan

PARTE HARTZAILEAK: 5 emakume eta 3 gizon

1. Haurtxokoko koordinatzailea: Olatz Errasti
2. Kuadrillategi: Maddi Etxebeste
3. Pasaia Lizeoa: Edurne Urkiola
4. Berritzegunea: Marivi Fernández
5. Kale Hezitzailea: Iker Fernández
6. Herri Eskolako Guraso Elkarte: Irati Aranburu eta Ager Arrieta

BIGARREN MAILAKO ITURRIAK. Hurrengo iturriak erabili dira ere:

- Berdintasun sailaren memoriak
- EUSTAT – Euskal Estatistika Erakundea
- Euskal Gobernuaren Open data
- Udalmap
- Lanbide
- EIN- Estatistika Institutu Nazionala

BENCHMARKING DOKUMENTALA Udaleko web orriko hamar berri aukeratu dira komunikazioen bidez transmititzen den berdintasunaren ikuspuntua ebaluatzeko.

3. II PLANAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Atal honen helburua Lezoko Berdintasunerako II. Planaren ekintzen betetze maila zehaztea da.

2015eko urtarrilean Lezoko Udalean martxan jarri zen II. Berdintasun Plana 5 programatan egituratzen da. Programa bakoitzak helburu nagusia dauka eta helburu nagusi bakoitzean hainbat helburu zehatz aipatzen dira. Halaber, programa bakoitzeko helburu nagusiak eta zehatzak lortu ahal izateko zenbait ekintza proposatu dira.

| PROGRAMAK | HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK |
|--|------------------|-----------|
| Gobernantza hobetzeko neurriak | 8 | 21 |
| Balioak aldatzea | 3 | 8 |
| Emakumeak boteretzea | 4 | 6 |
| Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera | 5 | 6 |
| Indarkeria sexistari aurre egitea | 3 | 7 |
| GUZTIRA | 23 | 48 |

Berdintasunerako II. Planaren ekintzen betetze maila zehazteko programa bakoitza aztertuko da:

1. Programa: Gobernantza hobetzeko neurriak

Programa honen helburua udal-politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea da. Zentzu honetan, aurreikusi ziren 21 ekintzetatik 6 guztiz lortu dira eta 7 partzialki. Hala ere, 8 ekintza bete gabe geratu dira. Honen arabera, betetze maila %28,57koa izan da.

Lorpen nagusiak

- ✓ Berdintasunerako unitate administratiboa sortu da. Berdintasun teknikari bat kontratatu da eta saila udal egituraren organigraman kokatu da, alkatetzan hain zuzen ere.
- ✓ Udal-enplegu publikoa lortu eta barne-promoziorako hautaketa prozesuetarako ikasgai-zerrendan berdintasun edukiak txertatu dira eta emakumeak azpiordezkatuta dauden esparruetan berdinketa kasuetan emakumezkoen alde egiteko klausula txertatu da.
- ✓ Udaleko komunikazio-elementuak modu ez-sexistan erabiltzeko lehenengo urratsak eman dira, hala nola, udaleko komunikazio elementu nagusietan sexismoa azaltzen

den aztertuz. Bestalde, hizkuntzaren erabilera zuzena egiteko gida sortu eta udal teknikarien artean zabaldu eta formakuntza eskaini da. Kasu honetan politikariek ez dute parte hartu.

- ✓ Diru-laguntzen ordenantza aldatu zen berdintasunerako klausulak aplikatzeko. Ordenantza 2018an onartu da udalean.
- ✓ Diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatu dira.

Egin gabe geratu diren ekintzak

- ✗ Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.
- ✗ Prestakuntza-jardueretan genero-ikuspegia txertatzea.
- ✗ Udal-araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.
- ✗ Kontratuetan berdintasunerako klausulak aplikatzeari buruzko akordioa onartzea.
- ✗ Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea.

Oro har, sail gehienetan genero-ikuspegia txertatzeko urratsak eman diren arren, bilakaera hala moduzkoa izan da eta lan handia dago egiteko oraindik ere. Okerreko pertzepzioa hautematen da kasu batzuetan, berdintasunarekin lotutako alde guztiak sail horri dagozkiola, 4/2005 legean aipatutako zeharkakotasuna ahaztuta: sail bakoitzaren ardura da berdintasuna txertatzea beren jardunean. Ondorioz, nahaste handia atzeman daiteke berdintasuna dela eta, teknikarien funtzio banaketan.

- Hurrengo planerako erronka: Udaleko sail guztietan berdintasuneko formakuntza espezializatua eskaintzea genero perspektiba alderdi guztietan txertatu ahal izateko. Halaber, barneko komunikazioa eta koordinazioa sendotzea ezinbestekoa da. Horretarako, berdintasun arloa sendotu beharko litzateke eta berdintasun teknikariaren ordu kopura handitu jardunaldi osora pasatuz. Horrez gain, horri berezko espazioa ematea komeniko litzateke ere, eragileek eta emakume taldeek udalean berdintasunarekin lotutako erreferentziako toki bat izateko eta aldi berean, berdintasunari dagokion aitortza/balorea/prestigioa emateko.

2. Programa: Balioak aldatzea

Bigarren programak pertsoneri sexuaren arabera egotziriko genero-estereotipo eta rola eraldatzea lortu nahi du. Horretarako, 8 ekintza proposatu ziren. Huetatik, 4 bete dira, 2 partzialki eta 2 pendiente geratu dira. Beraz, betetze maila orokorra %50 izan da.

Lorpen nagusiak

- ✓ Erantzukizun ekonomikoa gizonekin eta familiaren eta etxearen ardurak emakumeekin lotzen duten ume, gazte eta helduen kopurua murriztu egin da. Horretarako, haur edota zaintza eta hezkuntzarekin zerikusia duten udal-zerbitzuetan gutxieneko gizon edo mutil kopurua bermatu da.
- ✓ Emakumei eta gizoni lan-, kirol-rol eta -estereotipoak esleitzen dizkieten umeen, gazteen eta helduen kopurua murrizteko programak egin dira. Hala nola, Kuadrillategi zein kale-heziketako programako gazteekin genero estereotipo, rol tradizional eta edertasun-kanonen gaia landu da.

Pendiente geratu diren ekintza nagusiak

- ✗ Musika eskolako matrikulazio garaian genero kanpaina zabaltzea.
- ✗ Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin konprometituta dauden eta hori defendatzen duten pertsonen kopurua handitzea.

Hurrengo planerako erronka: Hezkidetzak lantzea eta komunikabideetan bi sexuen ordezkariak orekatu eta irudi plurala sustatzea edertasun-kanonak eta estereotipo sexistak alde batera utzita. Azken horri buruz, ezin aipatu gabe utzi komunikazio arloa lantzeko enpresa bat kontratatu berri duela udalak eta beraz, horri buruzko lanketa egitea komeni dela.

3. Programa: Emakumeak boteretzea

Hirugarren programa emakumezkoen boteretze prozesuak laguntzean oinarritzen da. Kasu honetan, planteatu ziren ekintzak ez dira guztiz egin eta lan handia dago egiteko ardatz honi dagokionez.

Egindakoaren artean, Gaxuxak ahaldu zenbait ikastaro egin ditu 2015etik aurrera, elikadura, autoestimua, hirigintza eta generoa, adimen emozionala eta ahalduak, maitasun erromantikoa desmuntatzen eta ahalduak irakurketaren bidez ikastaroak,

besteak beste. Gaxuxaren ahalduntze ekimenetan 100 emakume baino gehiagok parte hartu dute, 2015etik 2019ra bitartean.

Bestalde, Berdintasunetik autodefentsa ikastaroez gain (54 emakume), mindfulness ikastaroa egin zen, 2017an eta 12 lagun aritu ziren.

Pendiente geratu diren ekintza nagusiak

- ✘ Emakumeen autoestimua hobetzen eta garatzen laguntzea
- ✘ Herriko emakumeen eta beren ekarpenen gizarte-aitorpena handitzea.
- ✘ Planeko 3.2.1, 3.2.2, 3.2.3 kultura arlotik egin beharrekoak.
- ✘ Genero-kontzientzia bultzatzea eta emakumeen autonomia sustatzea.
- ✘ Emakumeak lan-munduan sartzea, eta haien lan-baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea.

Hurrengo planerako erronka: Emakumeen jabetasuna indartzeko programa zehatza lantzea eta emakumeen kontseilua sortzea.

4. Programa: Erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera

Programa honek, udal, enpresa zein herritarren artean kontziliazio erantzunkidea zein zaintzaren etika bultzatzea lortu nahi du. Zentzu honetan, aurreikusitako 6 ekintzetatik 3 bete dira eta 1 partzialki lortu da. Izan ere, 2 ekintza bete gabe geratu dira. Beraz, betetze maila orokorra %66 izan da.

Lorpen nagusiak

- ✓ Amatasun- eta aitatasun-baimenak parekatzea sustatu da, iraupen bera izan dezaten, eta aldi berean ez hartzeko helburua bultzatu da.
- ✓ Kontziliazio-neurriei heltzen dieten udal-langile gizonzkoen ehunekoa handitzeko saiakera egin da, udal langileek erabil ahal dituzten kontziliazio neurrien gaineko informazioa langileen artean zabaltzen.
- ✓ Kuadrillategiko eta kale-heziketako programako ekintzen artean, lokalaren mantentze eta garbiketa lanak egiteko kanpainak jarri dira martxan urtero, gazteek etxeko lanak eta zaintzakoak egiten pasatzen duten denbora handitzeko asmoz. Kasu honetan, mutilei arreta berezia jarri zaie.

Bete gabe geratu diren ekintzak

- ✘ Herritarrei eskainitako zerbitzuen ordutegiak malgutzea, langileen kontziliazio erantzunkidea bermatzeko.
 - ✘ Pertsonen autonomia erraztuko duten irizpideak, hirigintza-planetakook eta etxebizitzaren eta espazio publikoen diseinukoak, identifikatzea eta aplikatzea.
- Hurrengo planerako erronka: Herri-mailan erantzunkidetasuna sustatzeko belaunaldi ezberdinen arteko programak bideratzea, zaintza eta pertsona nagusien papera aintzat hartzeko, baloreak sustatzeko ... Halaber, Lezoko mugikortasun planean genero ikuspuntua txertatzea.

5. Programa: Indarkeria sexistari aurre egitea

Azkenengo programaren helburua gaiarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimentzako arreta hobetzea da. Betetze maila altua izan da, hau da, %85,72koa, eta planteatu ziren 7 ekintzetatik 6 bete dira.

Lorpen nagusiak

- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek berdintasunik ezarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotu egin da. Horretarako, sentsibilizazio kanpainak diseinatu eta martxan jarri dira, emakumeen kontrako indarkeria kasuetarako erantzun instituzionalaren protokoloa landu da eta autodefentsa feministako tailerrak urtero eskaini dira (2020. urtean izan ezik COVID-19ren ondorioz). Halaber, indarkeria jasan duten emakumeentzako auto-laguntza taldea sortu zen 2006an, pixkanaka sendotzen joan dena. Esku-hartze erreparatzailea gauzatu ohi da bertan eta parte hartzaileei ahalduntzeko aukera ematen zaie, autonomia eta genero-kontzientzia sustatuz.
- ✓ Indarkeriaren biktima diren emakumeen babesa eta arreta bermatu da, emakumeen kontrako indarkeria kasuetarako prebentzio eta arreta-protokoloa landu da (ez da ezagutzera eman, sinatzeko arazoak daudelako). Halaber, sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko udalaren prebentzio eta arreta protokoloa diseinatu eta martxan jarri da.


Bete gabe geratu den ekintza nagusia

- Desberdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren harremana agerrarazten duten programa eta jarduerak diseinatu eta garatzea.
- Hurrengo planerako erronka: Gazteekin eta umeekin lan egiteko prebentzio programak abiatzea eta indarkeria protokoloak eguneratzea.

Ondorioak

Oro har, betetze-maila ez da izan oso altua. Planteatu ziren ekintzetatik %39,58 bete dira, %20,83 partzialki eta %39,58 bete gabe geratu dira.


Betetze maila orokorra



Informazioa programen arabera aztertuz ikusten da indarkeria sexistari aurre egiteko planteatu diren ekintza gehienak bete direla. Beraz, esan ahal da 5. programan bete diren ekintzen proportzioa beste programetan baino askoz altuagoa izan dela.

Programen araberako betetze maila

Lezo Berdintasuna 2021



II BERDINTASUNAREN PLANAREN INDARRALDIAN EGINDAKO LANAREN EKIMEN NAGUSIAK

Indarkeria Matxista

- Autolaguntza taldea, indarkeria matxistak kaltetuentzat, 2016tik dago abian, inguruko herriekin batera.
- Prebentzio eta arreta protokoloa diseinatu eta martxan jartzea eta urteko kasuen txostena egitea.
- Indarkeria Protokoloa 2016an egin da Pasaiarekin batera, eta 2017ko uztailean onartu du udalbatzak.
- Publikoak egindako eraso matxistei erantzun instituzionala emateko protokoloa onartu eta larrialdi mahai teknikoa osatu da. Horren lana sistematizatu beharko litzateke.
- Sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari buruzko udal protokoloa diseinatu eta martxan jartzea (udal barrukoa). Ez da behar bezala hedatu.
- Autodefensa ikastaroak urtez urte.
- “Maita zera ere” kuadrillategiko kideentzat. Maitasuna eta tratu onak hizpide dituen antzezlanak.

Komunikazioa ez sexista

- Udaleko komunikazio enpresaren jarraipena egin da genero ikuspegia barneratzeko (hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista, indarkeria matxistari buruzko kasu bat gertatuz gero, komunikazio tratamenduari buruz, gida ezberdinak banatu zaie).
- Euskara dinamizatzaileak hizkuntza barneratzaileari buruzko gida bidali itzultzaileei, erabili zezaten.
- Udalaren webgunea berritu zen eta Berdintasun sailaren atala sortu da. Webguneko testu guztien azterketa egin da hizkuntza barneratzailearen ikuspegitik.
- Webgunean eskura dauden inprimaki guztiak zuzendu dira.

Emakumeen Jabetzea

- Mindfulness ikastaroa.
- Irakurketa ahalduentzako (Gaxuxa).

- Raketisten lanaren hedapena Mendekosteko jaietan, bertan lezoar batek jardun zen: Koldobike Gezala. Santa Krutzetan, Josetxo Etxandi pilotariarekin batera Koldobide omendu dira. Goiko pilotalekuari lehendabizikoaren izena jarri zitzaion eta bigarrenarena kiroldegiko frontoiari.

Jaiak

- Jai parekideak izeneko egitasmoa egin da 2017an, Oarsoaldeko beste herriekin batera. Egoeraren diagnosis egiteaz aparte, bi lanketa saio egin dira herriko jai batzordeko kideekin.
- Batzordekideei jaiak parekideak izateko gomendio sorta banatu zaie hurrengoetan erreparatuz:
 - o Hizkuntza eta irudi barneratzailea erabiltzeko beharra: egitarauan eta plazaratutako kartel eta hedapen material guztietan.
 - o Indarkeria matxistari aurre egiteko inplikazioa indartu beharra, eta erasoren bat gertatuz gero, horri eman beharreko erantzunaz
 - o Zabarre Pirata pertsonaiari buruz gogoeta egin eta emakumezkoek parte hartzeko beharraz. Maria Labaien sagardogilearen pertsonaia sortu da.
 - o Ekitaldi nagusietan, bi sexuen presentzia orekatua bermatzeko beharra, batik bat ekitaldi nagusietan.
- Erasoen kontrako kanpainak antolatu dira Mendekosteak eta Santa Krutzetan: indarkeriarik gabeko gunea jartzeaz gain, prentsaurrea egin, kartelak, txapak, pankarta, plazaratu eta jaietako protokoloa buzoneatu dira. Horrez gain, indarkeriaren kontrako bide-seinaleak jarri dira herriko sarrera nagusietan.

Formazioa berdintasunean

- Erakundeen arteko protokoloaren testuinguruan indarkeriaren biktima adingabeei buruzko formazioa egin da Kuadrillategi, Gizarte langileak, kale hezitzaileak eta osasun alorreko eragileei zuzenduta.
- Erakundeen arteko protokoloaren testuinguruan, formazioa indarkeriari buruz udaltzainekin eta politikariekkin. Baita Osakidetzako eragileekin kasuen atzimate goiztiarra sustatzeko ere.

- Hezkidetzari buruzko formazioa egin da eskola kiroleko begiraleekin eta kirol elkarteetako kideekin eta Kuadrillategiko begiraleekin.

Arautegia berdintasunean

- Diru-laguntzen ordenantza aldatu da Berdintasun irizpideekin bat egiteko. Diru-laguntza eta hitzarmen gehienetan txertatu dira klausulak. Segimenduan dago erronka orain.
- 2019 an Ixkulek bere estatutuak aldatu eta emakumeak onartu ditu bazkide gisa.
- Berdintasun klausulak txertatu ziren kontratu handietako exekuzio baldintzetan.
- Hautaketa prozesuetan, ikasgai zerrendan berdintasunari buruzko gaiak sartu eta berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula txertatu dira.
- Lankideen kontratazioetarako protokoloa egin da genero ikuspegia txertatuta.
- Bekoerota kiroldegiko eta Altzate igerilekuko erabilera-araudian berdintasun irizpideak txertatu dira

M8 eta A25 kanpainak

Honako ekimenak bideratu dira Gaxuxa eta Lezoko emakumeak eta hezkidetzak mahaiarekin batera:

- Zinegoak film saioa eta bortizkeriaren zikloa hitzaldia.
- “Emakumeok bizirik” erakusketa ibiltaria.
- M8, Gosaria eta elkarretaratzea.
- Emakumeen eskubideei buruzko film laburrak.
- Bideoforum-ak
- Gaxuxaren esku-lanen erakusketa.
- A25, zapata gorriak dendetan eta zapi gorriak balkoietan
- Garazi Paskual funanbulistaren emanaldia, Ganbara kontzertua (musika eskolako ikasleekin).
- Zapi moreak herriko eraikin nagusietan
- Hitzaldia sexu erasoekin zer gertatzen ari da?
- indarkeria sexistaren kontrako poltsak, txapak eta muxukoak banatu
- Publizitate faldoia hitzan, publizitatea Berrian eta kuñak Onda vascan

- Isiltzen joan zirenak ipuin musikatuak (Lourdes Iriondon bizitzan eta lanean oinarrituta), Anariren kontzertua, Virginia Imaz pailazoaren emanaldia eta Miren Arangurenen hitzaldia: “Agerikoak eta ezkutukoak: bizitzak erdigunean, covid-19 garaian”

Aurrekontua, egiturak eta parte hartzea

Parte hartzea

II Planaren indarraldian, Udalak antolatutako ikastaro eta formakuntzetan 120 emakume eta 40 gizonen baino gehiagok parte hartu dute. Honako hemen eskainitako formazio nagusienak: Hezkidetza (Kuadrillategiko hezitzaileak), Kirola eta berdintasuna (kirol taldeak eta eskola kiroleko hezitzaileak), Berdintasunari buruzko oinarrizko ezagutzak (politikariak eta udal langileak), Hizkuntza barneratzailea (udal langileak), Indarkeria kasu baten aurreko komunikazio tratamendua (komunikazioa eta politikariak), Indarkeria matxista eta erasotuen arreta (udaltzaingoa) eta Indarkeria matxista eta adingabeak (auziaren prebentzioan edo esku hartzean diharduten eragileak), besteak beste.

Egiturak

Planaren koordinaketarako hurrengo egiturak sortu eta mantendu dira azken urteetan:

- Hezkidetza Mahaia, urtean lau aldiz bildu dira; hamar bat kide dira, gehiengoak emakumeak.
- Berdintasun Batzorde teknikoa, 2014tik 2018ra gutxienez urtean bi bilera egin dituzte; 10 bat kide, gehiengo gizonenak
- Bestalde, emakumeen taldeekin urtean zehar gutxienez bi bilera antolatu dira koordinaketarako: Gaxuxa, Sorginak eta Lezoko emakumeak
- Eskualde mailan, berdintasun teknikarien mahaia dago, ez dauka maiztasun jakin bat
- Foru Aldundiko Berdintasun teknikarien sarean dago teknikaria, baina denbora falta dela eta, ez du parte hartzen

Aurrekontua 2017 – 2021

| | Teknikariaren kontratazioa | Berdintasunaren sustapena | Gaxuxaren hitzarmena | Gaxuxaren lokalaren garbiketa | GUZTIRA |
|------|----------------------------|---------------------------|----------------------|-------------------------------------|----------|
| 2017 | 22.000€ | 28.000€ | 14.000€ | 1.300€ | 65.300 € |
| 2018 | 25.462€ | 28.000€ | 14.500€ | 1.300€ | 69.262 € |
| 2019 | 25.950€ | 15.000€ | 14.500€ | 1.300€ | 56.750 € |
| 2020 | 25.772€ | 15.000€ | 14.500€ | 1.200€ | 57.872 € |
| 2021 | 28.249€ | 15.000€ | 14.500€ | 2.400€ GARBIKETA+ARGI INDARRA | 60.149 € |

Berdintasunaren aurrekontuaren batz bestekoa azken urteetan 61.866,6 € izan da. 2021ean 60.149€koa izan da eta Udal jarduera osoarena 10.541.550€koa. Beraz, berdintasunari aurrekontu osoaren %0,57a baino ez dagokio eta horren %0,14a baino ez da berdintasunaren sustapenerako, huskeria beste arloetako aurrekontuekin alderatuta. Hortaz, aurrekontu txikiena duen saila da, alde handiagatik gainera, eta gauza jakina denez, aurrekontuak markatzen ditu zeintzuk diren udal baten lehentasunak.

Hona hemen udal sail eta zerbitzu batzuen 2021eko aurrekontuak:

- Etxebizitza eta hirigintzaren administrazio orokorra 477.918€
- Kulturaren arloko administrazio orokorra 465.118€
- Musika eskola 332.765€
- Gizarte zerbitzuen arloko administrazio orokorra 230.737,00€
- Etxez etxeko laguntza 229.312,00€
- Kirolaren arloko administrazio orokorra 192.803€
- Modernizazioa 186.561€
- Ingurumenaren administrazio orokorra 135.475€
- Andreone liburutegia 106.512€
- Ludoteka 102,000€

Bestalde, ikus ditzagun berdintasunaren gertuko aurrekontua duten jarduerak edo programak:

Lezo Berdintasuna 2021

- Kultur ekitaldien kontratazioa 95.000€
- Lore zaintza kontratua 82.000€
- Santa Kruz jaiak 75.000€
- Futbol zelaiaren mantenimendua, kudeaketa eta materiala 61.300€
- Eskola kirola 50.000€

Indarguneak eta Ahuleziak

Azkenik udal mailan III Berdintasun Plana egiterako orduan hurrengo indargune eta ahuleziak identifikatu dira:

Indarguneak

- Eragile oso aktiboak daude herrian eta berdintasuna lantzeko gogo handiarekin.
- Berdintasun teknikaria dago. Berdintasun saila sortu da.
- Emakume feministen taldeak daude.
- Berdintasun plana ezagutzen dute langileek. Kontzientzia gehiago dago langileen artean.

Ahuleziak

- Berdintasun teknikariak lanaldi erdian dihardu.
- Parte hartzea kostatzen da orokorrean udalak deitzen duenean.
- Udala ez da proaktiboa eta herrira ez da gehiegi hurbiltzen.
- Berdintasun Plana ez da ezagutzen eragile eta herritarren artean.
- Jabekuntza ez da landu.
- Berdintasun Mahaia ez da sortu.
- Ez dago berdintasuneko urteko programazio jarraitua. Martxoak 8an eta Azaroaren 25ean kontzentratzen dira ekimen gehienak.
- Berdintasun formakuntzari dagokionez, hurrengo mailara pasa behar dira oinarrizko formakuntzaz gain formakuntza espezializatuago jaso behar dute arloz arlokoa, sail bakoitzari egokituia.

- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasunean, beste aukera batzuk ere planteatu beharko lirateke. Telelana hasi dela pandemiagatik, kontziliaziorako bide berri bat izan daiteke, konponbide bat.
- Emakumeen kontrako indarkeria kasuetarako erantzun instituzionalaren protokoloa landu da baina sinatu gabe dago.

Ebaluaketaren inguruko ekarpenak

Talde dinamiketan II Planaren inguruan jasotako ideia nagusiak jasotzen dira hurrengo atalean.

POLITIKARIAK

➤ EAJ-PSE

BALIOEN ALDATZEA eta EMAKUMEEN BOTERETZEA

- Positiboki baloratzen da herrian sortu diren emakume taldeak, ekintza desberdinak burutzen dituztenak.
- Lezo herri txikia izatean helburuak betetzea errazagoa izan daiteke.
- Herriko emakume historikoen errekonozimenduarekin hasi da, eta jarraitu beharreko gaia kontsideratzen da
- Herriko emakumeak geroz eta sentsibilizatuago daude berdintasunarekin, belaunaldi gazteak batez ere.

ERANTZUNKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA

- Positiboki baloratzen da amatasun eta aitatasun bajak parekatzen dituen legedia.
- Ardatz honetan helburuak asko bete direla uste dute.
- Administrazio elektronikoak, langile eta herritarren kontziliazioa errazten du.

INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA

- Udaletxetik emakumeen egunak bultzatu eta ikusarazten dira (martxoak 8, azaroak 25).
- Ondoko herriekin koordinazio mahaien bidez egiten da lan, emakume guztien segurtasuna bermatzeko.
- Biktima guztiek dagokien arreta jasotzen dute, biktima bakoitzaren arreta psikologiko eta juridikoa indartuz.

➤ EH BILDU

GOVERNANTZA

- Ofizialki egin edo bete behar dena egiten da.
- Azaletik ezagutzen dute plana.
- Helburuak gutxienekoan bete dira.
- Ez dakite indargunerik dagoen.
- HOBETU BEHARREKOAK:
 - Berdintasun sailaren lana plazaratzea.
 - Aurrekontuak igotzea.

BALIOEN ALDATZEA eta EMAKUMEEN BOTERETZEA

- Ez dute ezagutzen egindakoa.
- Emakumeak orokorrean ez daude boteretuak; daudenak, beraiek pertsonalki lortu dutelako da eta emakume taldeetan lan egiten dutelako.
- Herria ez dago sentibilizatuta, egun berezietan ez ezik (martxoak 8, azaroak 25).
- Indargune nagusiak: emakume taldeak eta burutzen dituzten ekintzak, baina ez udalaren babesa dutelako, beraien indar eta gogoagatik baizik.
- Emakumeen boteretzea lortzeko gauza gutxi egin da.

ERANTZUNKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA

- Ez dakite zer egin den.
- Inplikatzin diren eragileak, emakume taldeak dira.
- Gizonak ez daude sentibilizatuta.

INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA

- Ez dute ezagutzen udalak duen plana. Gaiaren inguruan sentibilizatzeko eta aurre egiteko udalak ez du ezer antolatzen.
- Herria 3 momentu zehatzetan azaltzen da sentibilizatuta indarkeriarekin, baina ez bestelako gaiekin.

EUSKARA, KULTURA, KIROLA ELKARTEAK

Ez dute ezagutzen ez II Berdintasun Plana ezta egindako lana ere; badakite dagoela baina zehaztasun gehiagorik ez.

“Prentsaurreko asko planak egin direla baina herriari ez zaio zabaltzen”.

Plan handiak, potolok egiten dira eta galdu egiten gara. Hobe bi helburu bakarrik eta bete (Xoxolur). Lezon denbora gehiago dedikatu behar zaio berdintasunari: *“Berdintasun teknikariak jardunaldi osoa behar du. Berdintasuneko Aurrekontua erdira jaitsi dute eta horrela ezin da aurrera egin. Hautetsiek eredugarri izan behar dute”.*

Gaizki baloratzen dute II plana, ezagutza faltagatik. Bi egunetan bakarrik zentratzen da: Martxoak 8 eta Azaroak 25. *“Urte osoko plangintza behar da”.*

Indarkeriaren Protokolo bakarra (hainbat daude) egin behar da, baina udaletxekoa.

Faltan bota dute udaletik detaile txikiak gogoratu araztea, adibidez, argazkietan parekotasuna egotearen beharra. *“Udala aholkulari eta dinamizatzailerik izatea faltan bota dugu”.*

“Udaletxeak baliabideak jarri behar ditu”. Lezoko teknikari guztiak kanpotarrak dira eta horrek inplikazio falta dakar, ez da jai batzordeetan parte hartzen... Parte hartzea ere beste zentzuan egin behar da: *“udala elkarrean bileretara joan, jai batzordeetara... udala herrira!”* Kulturako zinegotziak eta alkateak ere ez dute parte hartzen.

Udalaren berdintasunaren aldeko jarrera behar da. Orain berdintasun zinegotzia alkatea dutela hilabete bat ezkeroztik, kasualitatez enteratu dira.

Ordutegiak egokitu behar dira: bilerak teknikariek goizez egiten badira, herritarrek ezin dute parte hartu. Teknikariek ere inplikatu beharko lukete: baliabideak, borondatea...

EMAKUME TALDEAK

Berdintasun plana oso zaila egiten da jendearentzat, duen egituragatik eta erabilitako hitzengatik: ardatzak, lerroak, programak... ez dute oso ondo ezagutzen.

Plana *“Vende humos”* bezala baloratzen dute. Hitz polit asko: hitzak, helburu politak baina ekintzak ez dituzte ikusten. Agian gehien egiten diren ekintzak kulturaren eta ikus-entzunezko jarduerak dira eta data zehatzetan.

Ez dute udalaren babesa ikusi (Lezoko emakumeak).

Proposamenak dituzte baina udaletik ez dago erantzun baikorrik. Indarkeria Matxistaren aurreko Protokoloa dago baina ezezagutza handia dute.

Herrian gertatutako bi erasoen aurrean, ez zen komunikaziorik egon, kaletik iritsi zen udalera kasu hauen berri.

Egunerokoan emakumeen lana aitortzeko ez da ezer egin

Komunikazioa ez da ona, ez da lehenetsia. Berdintasun mahaia behar da.

HEZKIDETZA MAHAIA

Beharbada plana hasi hasieran aurkeztu zen baina programak ez dituzte ezagutzen, beraz ezin dituzte baloratu. Komunikazio falta egon da, edo ez egokia.

Sentsibilizazio bat dago udaletxetik, berdintasun teknikaria kontratu dutelako, baina ekintzak alderdi praktikotik proposatu dira, non kokatzen diren jakin gabe.

Faltan gehien bota duten alderdia plangintza falta izan da, komunikazio hobea, ekintza puntualak ez izatea. Faltan bota dute elkartzea. Koordinazioa falta izan da. Ezin daiteke izan berdintasun teknikaria ez egoteagatik, ekintzak bertan behera gelditzea (kuadrillategiko formakuntza adibidez). Egitura baten falta dago, ezin da pertsona baten menpe egon funtzionamendu osoa.

Ekintza zehatzekiko ekarpenak:

2.1.1. Haur edo/eta zaintza eta hezkuntzarekin zerikusia duten udal-zerbitzuetan gutxieneko gizon edo mutil kopuru bat bermatzea: ludotekako hezitzaile bat mutila izatea eta udalekuetako begiraleetako bat bederen mutila izatea (pleguetan irizpide modura integratu) Hezkuntzarekin erlazionatutako zerbitzuetan badaude mutilak: Ludotekan eta udalekuetan, kale hezitzaileen pleguetan jartzen du (erreferenteak bilatzen dira gazteekin lotura egiteko).

2.1.2. Ludotekako materialak: jolasak, liburuak, ipuinak etabar genero ikuspegiaren arabera aztertzea eta berdintasun irizpideetara egokitzea Haur Eskolan (Haurtxo) material ez sexista erosten dute. Langileek barneratua dute baina familientzat ezezaguna da. Familiek sartua dituzte genero estereotipoak.

2.2.1. Kuadrillategi zein kale-heziketako programako gazteekin genero estereotipo eta edertasun-kanonen gaia lantzea, aldizkari, prensa edo/eta publizitatearen azterketa eginez, adibidez Saiatu dira (kurtso hasieran beti dute hezkidetzako formakuntza). Gazteekin lantzen da, hezitzaileak hezitu eta gero (kuadrillategi)

Kale hezitzailea: udaletxetik ez zaie eskaini horrelakorik; beraien kabuz ez dute landu, zeharka bai, biok dutelako formakuntza eta borondate bat. Baliabideak behar dira. Esperientziak konpartitzeak balio dezake elkar kontatzeko, eta ekintzetara joateko.

Beharren elkar konpartitzetik berdintasun sailarekin, dinamikoago izan daiteke. Formakuntza jasotzeko beharra.

2.2.2. Familiako esku-hartzean, familietako kideengan genero-rolak erreproduzitzea sahiestea hezitzaileen bidez, hezitzaileak konzientziatuak egotea eta genero rol tradizionalak gaindituko dituzten baloreak transmititzea. Familiekin ez da zuzenean esku hartzen (guraso eskolak) bai egin da hezitzaileekin kasu konkretuetan. Egin bada, ez da mahaia honetatik bideratu. Ikastetxeetan lan handia egiten da berdintasunean, hezkuntzatik bideratzen delako (berritzegunea) Arazoa familietan da: hezkidetza oso arrotza zaie. Gizarteak orokorrean jasotzen dituen erreferenteak oso estereotipatuak daude: sare sozialak. Denak batera joan behar dugu, familien ikuspegia denak batera aldatu behar dute. Parekidetasuna zeharlerroa da. Udaletxearen papera garrantzitsua da beharrei erantzuteko. **FORMAZIOA HEZKIDETZA MAHAIARENTZAT: urterokoa, jarraia. Hezitzaileentzat, gurasoentzat... eragile desberdinentzat.**

2.2.3. Eskola kiroleko urteko jarduera-plana diseinatzean, berdintasun-irizpideak kontuan izatea

Lan bat egiten da: handicap handiena, taldeak osatzea neskekin. Aurten pandemia dela eta lehia desagertu da eta denak elkarrekin primeran egon dira. Bestela, taldeen osaketa konplikatu izaten da: neskak neskekin nahi dute, mutilak mutilekin. Lehia tartean dagoenean neskak erosoago daude neskekin. Lehia desagertu da eta gatazka desagertzen da; balioa ez dagoenean, gatazkarik ez. Ondorioak ateratzeko interesgarria. Oarsoaldean kirola dago.

2.3.1. Guraso-elkarteekin hezkidetza saioak egitea Egin dira baina ez udalaren eskutik; udaletik ere ez da jarraipenik egin. Saio bat egin zen kale hezitzaileekin indarkeria jasandako umeekin nola jokatu lantzeko. Pasaiarekin batera, gizarte langileak ere etorri ziren: udal langileentzat eta mahaiko kideentzat zabaldu zen. Jarraipen beharra.

Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista

Udaleko web orriko hamar berri aukeratu dira komunikazioen bidez transmititzen den berdintasunaren ikuspuntua ebaluatzeko, hala nola, hizkuntza eta irudiak modu integratuan erabiltzea, genero-estereotipo tradizionalak errepikatzea, parte-hartze orekatua, protagonistak nor diren, etab.

1.DOKUMENTUA

GAIA: Berria: “Programa Eskola Kirola”

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

Azpituluan eta hainbat aldiz testuan zehar, barrak erabiltzen dira bi sexuak sartzeko: “... para que niños/as y jóvenes se inicien en...”.

Hizkuntza generikoa hainbat alditan erabiltzen da, eta formula inklusiboena da:

“Ofrecer al alumnado...”

“... el monitorado está...”

“Todo el alumnado debe...”

Hizkuntza inklusiboa erabiltzen da "ezaugarriak" ataleko "c" puntuan, hau esatean: “... al nivel de desarrollo de los niños y niñas...”. Kasu honetan, bi errealitateak agerian jartzen dira. Agian zuzenagoa litzateke “desarrollo de niños y niñas” esatea edo femeninoa lehenestea, testuan genero maskulinoa lehenesten baita.

HOBETZEKO ALDERDIAK:

Adierazitako indarguneetako bat ere hobetu beharreko alderdia da; izan ere, barrak tresna baliagarriak diren arren, hizkuntza zailtzen dute eta ahalik eta gutxien erabiltzea gomendatzen da. Gainera, testu osoan zehar, erabili direnean, maskulinoan idatzi da eta emakumeen aukera gehitu da, maskulinoan irakurtzea erraztuz eta emakumeen presentzia bigarren mailan geratuz:

“... se reunen los/as profesores/as de educación física...”

“... coordinadores/as de los centros escolares...”

“Los niños/as forman...”

“... educar jugadores/as "hábiles...”

“... las actitudes de monitores/as y jugadores/as, tanto con compañeros/as como contrarios/as y árbitros/as...”

2. DOKUMENTUA

GAIA: Berria: “En marcha la convocatoria de subvenciones para aprender Euskera”

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

Hirugarren paragrafoan bi sexuak aipatzen dira, honako hau esanez: “... a los alumnos y alumnas con asistencia superior...”; beraz, emakumeak ere agerian uzten dira.

Bosgarren paragrafoan berriro aipatzen dira bi sexuak: “... del curso de monitor, monitora, director o directora...”. Bi generoak hartzen dira kontuan, eta horrek nolabaiteko genero-sentsibilitatea erakusten du, baina maskulinoa bigarren aldiz lehenesten da. Kasu honetan, ordena txandakatzen joatea litzateke egokiena..

HOBETZEKO ALDERDIAK:

Gizon zein emakumeei zuzendutako albistea da, baina irudian genero maskulinoa baino ez da agertzen.
Euskara eta kultura maskulinizatzeko arriskua dago.
Garrantzitsua da emakumeen presentzia eta irudikapena, bai idatzizko edukian, bai ikusizko edukian.

3. DOKUMENTUA

GAIA: Berria: “Dos lezoarras primeros premios en el concurso de jóvenes músicos de Euskadi”

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

Irudian Ane Espina eta Paul Muñoz ageri dira, beren kategorian lehen saria jaso zutenak.
“... todas las personas presentes...” Pertsonak hitza zuzen erabiltzen da bi sexuak aipatzeko.
“... alegrías a sus familiares... al pueblo de Lezo...” Senitartekoak eta herria hitzak behar bezala erabiltzen dira bi sexuak adierazteko.



HOBETZEKO ALDERDIAK:

Izenburuan emakumeen presentzia alde batera uzten da, gizonezko sexuari soilik erreferentzia eginez: “Dos Lezoarras... jóvenes músicos...”
Bigarren paragrafoan eta azken paragrafoan “@” erabiltzen da: “Dos fueron l@s lezoarras...” y “... amig@s y al pueblo de Lezo...”. Nahiz eta ulertzen den bi sexuak sartu nahi direla, ez da gomendagarria, hizkuntzaren gramatika-arauak hausten dituelako eta ezin delako ahoskatu.
Testuan, genero femeninoa behin baino gehiagotan alde batera uzten da, eta maskulino generikoa erabiltzen da:
“... jóvenes músicos de Euskadi...”
“... premios a los ganadores...”
“... fueron seleccionados los dos lezoarras...”
“... dilucidar entre los ganadores...”
“... muy jóvenes ambos...”
“... donde siguen vinculados...”
“Estamos convencidos de...”

4. DOKUMENTUA

GAIA: Berria: “Euskaraz hezi eta bizi: Guraso gara! Nuevos soportes para las familias”

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

“... transmisión del euskera en las familias...” Zuzen erabiltzen da "familia" hitza bi sexueta pertsonak kontuan hartzeko.

Lehenengo paragrafoan ama eta aitei egiten zaie erreferentzia: “... orientar a los padres y madres en...”

“... que sus hijos e hijas aprendan...” Haurrak genero bakoitzari dagokion hitza aipatuz kontuan hartzen dira, genero femeninoa ere ikusgai eginez. Hala ere, aurreko esaldian maskulinitasuna lehenetsi dela kontuan hartuta, zuzenena neskak lehenengo izendatzea litzateke.

Testuan zehar, bi sexuak aipatzen dira, bi errealitateak agerian jarritz, baina maskulinoa dena lehenesten da. Egokiena txandakatzen joatea litzateke.

“... se distribuye a los padres y madres...”

“... padres/madres y familias...” Hainbat errealitate hartzen dira kontuan, baina maskulinoa dena lehenesten jarraitzen da, eta hobe da barrak erabiltzea saihestea. Zuzenagoa litzateke barra koma batekin ordezkatzeta.

“... sean padres y madres castellanoparlantes...”

“... hijos e hijas...”

“... tiempo libre de sus hijos e hijas...”

“... comportamiento de los niños y niñas o jóvenes...”

“... muestra a los nuevos padres y madres...”

“... a la hora de llevar a los niños y niñas”

Hamargarren paragrafoan ordena aldatzen da eta femeninoa dena lehenesten da: “... a las madres y padres...”

HOBETZEKO ALDERDIAK:

Bigarren paragrafoan maskulino generikoa erabiltzen da: “... los recién nacidos ...”.

Zuzenagoa litzateke hau esatea: “Los y las recién nacidas”.

Bosgarren paragrafoan maskulinoa baino ez da aipatzen: “euskaldunes o uno euskaldun y otro no.” Proposamena: “Una persona sea euskalduna y la otra no”

Zazpigarren paragrafoan gauza bera gertaten da: “... la importancia que tienen los de casa...” Proposamena: “la importancia que tiene la familia”

Hamargarren paragrafoan berriz ere gizonezko sexua besterik ez da aipatzen: “... de los recién nacidos...” y “... en cuanto llega el recién nacido...”

Hamaikagarren paragrafoan gauza bera gertatzen da “... así como a la hora de escolarizarlos...”

5. DOKUMENTUA

GAIA: Personajes históricos

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK: Ez dira identifikatu.

HOBETZEKO ALDERDIAK:

Lehenengo paragrafoan genero femeninoa alde batera uzten da eta maskulino generikoa erabiltzen da:

“... muchos lezoarras se han hecho conocidos...”

“... Entre ellos, hay pilotos, militares, curas, escritores, compositores, bertsolaris y txistularis...”

Testuan 10 pertsonaia historiko aipatzen dira, guztiak gizonak. Ez da ikusarazi edo aipatu Lezoko historiako emakume garrantzitsurik.

6. DOKUMENTUA

GAIA: Cartel de fiesta “Mendekosteak 2019”

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

“... que la gente venga disfrazada...” “Jende” hitza behar bezala erabiltzen da bi sexuak biltzeko. Hizkuntza generikoa erabiltzen da, eta formula inklusiboena da.

“... atención sobre las/los menores para...” genero maskulinoari eta femeninoari egiten zaie erreferentzia. Hala ere, hobe da barrarik ez erabiltzea. Proposamena: “población menor de edad”

Hainbat alditan bi errealtateak agerian jartzen dira eta ordena txandakatzen da, femeninoaren aurretik jarrita. Baina hobe da barrarik ez erabiltzea.

“Encartelada a favor de presas/os y refugiadas/os vasca/os”

“... por dulzaineras/os de la comarca...”

“... para público infantil...” “Publiko” terminoa behar bezala erabiltzen da bi sexuak biltzeko.

Irudietan genero femeninoa eta maskulinoa irudikatzen dira hainbat jardueratan.

HOBETZEKO ALDERDIAK:

Behin baino gehiagotan erabiltzen da maskulino generikoa:

“... gigantes y cabezudos...”

“Musicos por las calles del pueblo”

“Venid disfrazados de piratas”

Irudi bat erabiltzen da "Herri kirolak" aipatzeko, eta gizonak baino ez dira agertzen. Hain maskulinizatuta dagoen espazioa izanik, komenigarria litzateke emakumeak ere agertzen diren irudiak erakustea, alde batetik, publiko femeninoa erakartzeko eta, bestetik, jada sektore horretako kide direnak irudikatzen.

Kartelaren buru pirata baten irudia da, eta, oro har, gizonen irudiak dira nagusi kartelean.



7. DOKUMENTUA

GAIA: Berria: “Numerosas iniciativas para proclamar el Día Internacional de la Mujer en Lezo”

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

“... anima a las y los lezoarras a participar...” Emakumeei eta gizonei zuzentzen zaie. Emakumeak sartzeko "las/los" erabilera saihestea gomendatzen da. Proposamena: “a toda la población”

“... animado a toda la ciudadanía a participar...” “Ciudadanía” hitza zuzen erabiltzen da pertsona guztiak biltzeko.

“... entre las personas asistentes...” “Personas asistentes” terminoa behar bezala erabiltzen da gizonak zein emakumeak aipatzeko.

“... a las y los lezoarras a unirse a la reivindicación...” Bi sexuentzat da, baina hobe da “las/los” ez erabiltzea. Hobe litzateke: “a toda la población”

“... anima a todas y todos a participar...” Berriz ere, hobe litzateke “todas las personas” esatea.

HOBETZEKO ALDERDIAK:

Bederatzigarren paragrafoan maskulino generikoa erabiltzen da: "... producido por los pamploneses Virginia Senosiain y Juan Luis Napal..." Proposamena: "Producido por Virginia y Juan Luis, quienes proceden de Pamplona"
 Irudian emakumeak bakarrik agertzen dira, eta horrek emakumearen egunaren aldarrikapena emakumeei soilik dagokiela aditzera eman dezake.

8. DOKUMENTUA

GAIA: "Gu ere Bertsotan"

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

Testu osoan zehar, zuzen erabiltzen da "bertsolaritza" terminoa. Horrela, diziplinari egiten zaio erreferentzia, eta ez diziplina horretan aritzen diren profesionali. Horrekin, gizonen eta emakumeen presentzia biltzen da.

Zenbait aldiz erabiltzen dira barrak emakumei eta gizonei buruz hitz egiteko. Emakumeak ere ikusgai jartzeko egokia bada ere, hobe da hauek ez erabiltzea. Gainera, komenigarria litzateke ordena txandakatzea eta beti maskulinoa dena ez lehenestea, kasu honetan bezala:

"Que cada alumno/a sea capaz de escribir..."

"Que cada alumno/a sea capaz de completar..."

"... necesidades y deseos de los/las aficionadas..."

"... encuentros entre quienes vayan..." "Quienes" terminoa behar bezala erabiltzen da pertsona guztiak biltzeko.

"Acercar el bertsolarismo joven y de élite a las escuelas" Zuzen erabiltzen da "eskolak" hitza ikasle guztiei erreferentzia egiteko.

HOBETZEKO ALDERDIAK:

Testuarekin batera, gizonak bakarrik agertzen diren irudi bat agertzen da. Kasu honetan, emakume bertsolariak ez daude ordezkatuta, eta, ondorioz, diziplina maskulinizatu egiten da.



9. DOKUMENTUA

GAIA: Servicio de Orientación Deportiva

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

Lehen paragrafoan, hainbat formula erabiltzen dira gizonei zein emakumei zuzentzeko, bi errealitateak agerian utziz:

"... dirigido a toda la ciudadanía..."

"... a quienes no practican deporte..." y "... quienes tienen una lesión..."

"... o niñas y niños que puedan..."

"... o personas que se encuentran..."

Bigarren paragrafoan, "Pertsonak" hitza erabiltzen da berriz ere, behar bezala, bi generoak biltzeko: "Las personas interesadas pueden acudir..."

Bigarren zutabearen ere barrak erabiltzen dira gizonak eta emakumeak aipatzeko. Zuzena

bada ere, gomendagarria da ez erabiltzea, testua irakurgaitza delako.

“... puesto que los médicos/as pueden...”

“... los/as educadoras del centro o los/las padres y madres...”

HOBETZEKO ALDERDIAK:

Aurreko atalean garatutako jarraibideak hobetu beharreko alderdiei dagozkie.

10. DOKUMENTUA

GAIA: Presentación

DATA: Aktibo web orrian

INDARGUNEAK:

- ✓ Testua garatzean, pluraleko lehen pertsona behar bezala erabiltzen da Lezoko udalerria osatzen duten pertsona guztiei erreferentzia egiteko. Irakurlea integratuta sentitzeko mekanismo bat da, sexua edozein dela ere.
 - “Nuestro pueblo conforma...”
 - “... vivimos casi de espaldas al puerto, porque no tenemos...”
 - “... quienes vivimos en Lezo sentimos orgullo...”
 - “... tenemos el orgullo de que podamos...”
 - “... hacer nuestra vida diaria sin salir de nuestro pueblo...”
- ✓ Zenbait aldiz erabiltzen dira barrak bi sexuak sartzeko. Zuzena bada ere, hobe da ez erabiltzea, testua irakurtzea zailtzen duelako:
 - “... no es porque lo digamos nosotros/as...”
 - “... Nuestros/as antepasados/as vivieron de la mar...” Kasu honetan, barrak bigarren aldiz erabiltzen direnez, komeni da ordena aldatzea eta femeninoa dena lehenestea, lehenengo aldia maskulinoa dena lehenetsi baita.
- ✓ Emakumeei eta gizonei ikusgaitasuna emateko hainbat mekanismo behar bezala erabiltzen dira:
 - “... para muchas personas es un municipio...”
 - “... quienes nos visitan...”
 - “... hay gente que puede vivir...”
- ✓ “... las y los baserritarras...” Laugarren paragrafoan "las/los" erabiltzen da gizonei zein emakumeei erreferentzia egiteko. Zuzena bada ere, hobe da ez erabiltzea eta bi sexuak biltzen dituzten hitzak erabiltzea. Proposamena: “Las personas baserritarras”

HOBETZEKO ALDERDIAK: Aurreko atalean garatutako jarraibideak hobetu beharreko alderdiei dagozkie.

GAZTEEI ZUZENDUTAKO INKESTAREN EMAITZA

Institutuko DBH3 eta 4ko ikasleei bidalitako inkestaren emaitzak aurkezten dira. Guztira 81 erantzun jaso, dira 39 emakume, 40 gizon eta 2 ez binario.

Beharrak berdintasunean (baiezkoak)

| | NESKAK | MUTILAK |
|--|------------|----------|
| Sentsibilizazioa lantzea gure jendartean oraindik ere dirauten estereotipo eta iritzi sexistak gainditzeko (eskolan, gazteekin eta jendartean orohar). | 45,7% (37) | 42% (34) |
| Mutilak inplikatzea etxeko eta zaintza lanetan. | 25% (20) | 23% (19) |
| Nesken lan sarbidea hobetzea. | 25% (20) | 22% (18) |
| Talde eta jatorri ezberdinetako emakumeen parte-hartzea eta baliabideekiko sarbidea hobetzea. | 25% (20) | 23% (19) |
| Indarkeria matxistaren arreta eta prebentzioa hobetzea. | 27 % (22) | 26% (21) |
| Emakumeen parte-hartzea hobetzea kirolean, kulturaren, politikagintzan ... | 26 % (21) | 23% (19) |
| Emakume gazteek indarkeria matxistaren inguruko baliabideei buruz duten inguruko informazioa hobetzea. | 25% (20) | 22% (18) |
| Sexu heziketa lantzea neska eta mutilei egokitutako informazioa emanez. | 25 % (20) | 22% (18) |
| Pairatu al duzu inoiz indarkeria matxista? Non (jaiak, sarea, ikastetxea, kuadrilla...)? Zein motatakoa? | 5 % (4) | 2 % (2) |
| Ikusi al duzu eraso matxistarik? Non... (jaiak, sarea, ikastetxea, kuadrilla...)? Zein motatakoa? | 12% (10) | 4% (5) |
| Parte hartzen duzu etxeko eta zaintza lanetan? Zertan? Egunean zenbat denbora? | 22% (18) | 25% (20) |
| Ikusi al dituzu iñoiz jarrera matxistarik? Zein motatakoa? | 20% (16) | 11% (9) |

Taulan ikusten den moduan gazte gehienek ikusten duten behar nagusia sentsibilizazioa lantzea da gure jendartean oraindik ere dirauten estereotipo eta iritzi sexistak gainditzeko eta orokorrean neskak jarrera matxisten aurrean sentsibilitate handiagoa dute.

Zure ustez zer da segurtasuna (eskolan, etxean, kalean...)?

Gazteek batez ere segurtasuna lasaitasunarekin lotzen dute. Izan ere, beraientzat edozein lekutan lasai egoteak segurtasuna izateari erreferentzia egingo dio. Ideia hau behin da berriz neska zein mutil gazteen artean errepikatzen da. Honetaz gain, segurtasuna beldurra

ez izatearekin lotzen dute eta azkenean, lasaitasuna eta beldurra guztiz aurkakoak izango lirateke.

Neska gazteen artean adibide bat modu nabarmenean errepikatzen da. Besteak beste, beraientzat segurtasuna kaletik bakarrik lasai eta beldur barik joatea izango litzateke. Hau da, adibidean lehen aipatutako bi kontzeptuak agertzen zaizkigu. Azken finean, egoera hau egunerokotasunean agertzen zaigu. Izan ere, neskek badakite kaletik bakarrik joatea bereziki gauetan arriskutsua izan daitekeela beraientzat eta horren aurrean, arriskuak ekiditeko asmoz kaletik lagunduta joan behar direla gogoratzen zaie.

Genero-ezberdintasunak daudela uste duzu? Zein ezberdintasun nagusi ikusten dituzu neska eta mutilen artean, zure egunerokoan?

Neska eta mutil gazteek genero-ezberdintasunak daudela uste dute. Nesken artean ideia honek adostasun orokortua jasotzen du, aldiz, mutil batzuk genero-desberdintasunak daudela, baina beraien inguruan ez dituztela hautematen adierazten dute.

Honetaz gain, genero-ezberdintasun hauek arlo ezberdinetan antzematen dituzte: kirolean, lan-merkatuan, hezkuntzan eta zereginen-kargan. Kasu honetan, mutil gazteek kirolean ematen diren desberdintasunak nabarmentzen dituzte. Aitzitik, neskek arlo ezberdinetan hautematen dituzten genero ezberdintasunaz hitz egingo dute. Zentzu honetan, mikromatxismoak aipatzen dituzte, hots, eguneroko bizitzan modu normalizatuan emakumeen aurka ematen diren praktika matxistak.

Genero-ezberdintasunei buruzko ekarpenak

Gazteen genero-ezberdintasunei buruzko ekarpenak berdintasuna lortzean oinarritzen dira. Zentzu honetan, elkar-laguntza garrantzitsua dela uste dute, izan ere, denak tartean sartzen duen gaia da eta hortaz, guztiok ekarpenak egin behar ditugula uste dute. Honekin batera, gai hauen jorraketa modu nabarmenean jasotzea eta pentsamendu aldaketa bat gertatzea proposatzen dute. Bukatzeko, berdintasunaren defentsan modu aktiboan parte hartzea planteatzen dute, kanpaina edo manifestazioen bitartez. Azkenik, deigarria da atzematea mutilek, neskek ez bezala, aurrera pausuak jaso direla eta egoera hobetu dela aipatzen dutela.

Eraso matxistak

Gazteek eraso matxistak atzeman dituztela adierazten dute. Batez ere, sare sozialetan, jaietan, kalean, edo pelikuletan ikusi dituzte. Mutil gazteen kasuan jaietan ematen diren eraso matxistak nagusitzen diren bitartean, neska gazteen erantzunak osatuagoak dira. Ikusitako eraso matxista hauek bortxaketa, irain edo mehatxuei egiten diete erreferentzia.

Honekin batera, neska zein mutil gazteek halako egoera baten aurrean aurkitu direnean jarrera antzekoak izan dituzte. Batzuk isilik geratu dira beldurra dela eta, beste batzuk laguntza eske joan dira, telefono dei bat burutu dute edo emakumea defendatzen eta erasotzailearekin hitz egiten saiatu dira.

Etxeko lanetan parte-hartzea

Neska zein mutil gazteek etxeko eta zaintza lanetan modu nabarmenean aritzen dira. Gehienetan zeregin edo eginkizun antzekoak burutzen dituzte. Besteak beste, erratza pasa, beraien logela txukundu, mahia prestatu, platerak garbitu, garbigailua jarri, ohea egin, sukaldatu, harrikoa egin, plater-ikuzgailua jarri edo arropa zintzilikatu. Zeregin horiei bost minutu eta ordubete arteko denbora eskaintzen diete.

Ikasketak eta lanbidea

Neska gazteen artean Gizarte Zientzia eta Arte alorreko ikasketak nagusitzen dira. Esate baterako, psikologia, kazetaritza, barne-diseinua, irakaskuntza, historia edo margolaritza. Hala ere, Zientziak, Osasun Zientziak edo Ingeniaritza eta Arkitektura ikasketak eta lanbideak aipatzen dira, baina modu apalago batean.

Bestalde, mutil gazteen kasuan Ingeniaritza adarra nabarmentzen da. Kasu honetan, Ingeniaritza gradu ezberdinak aipatzen dituzte, besteak beste, mekanikoa, elektronikoa, robotika edo elektronikoa. Honetaz gain, zientziekin eta kirolarekin lotutako ikasketak edo lanbideak ere nagusitzen dira.

Honek guztiak, lan-merkatuan emakume eta gizonei rol eta funtzio desberdinak esleitzea eta horrekin batera, sektore batzuk maskulinizatuta edo feminizatuta agertzea eragingo du.

Jarrera matxistak

Gazteek beraien egunerokotasunean jarrera matxistak hauteman dituztela adierazten dute eta hauek modu edo forma ezberdinetan azaltzen dira. Komentario edo txiste matxistak, hala nola, emakumeei etxeko eta zaintza lanen esleipena eta emakumeen ezintasuna gauza batzuk egiteko. Honekin batera, emakumeak kalean jasandako piropoak, mehatxuak edo erasoak aipatzen dituzte.

Egoera hauen aurrean neska eta mutil gazteak modu ezberdinetan jokatu dute. Alde batetik, nesken artean kexa eta amorru jarrera nagusitzen dira, ordea, mutilak jarrera agresiboagoak aurkezten dituzte. Honekin batera, neskek egoeraren arabera ez dutela ezer egin eta bai egin dutela adierazten dute. Beste batzuk laguntza eske joan direla aipatzen dute.

Kasu honetan, neska zein mutil gazteek jarrera matxistak atzematean ezer ez egitea edo isiltzea kezagarria izan daiteke. Azken finean, egunerokotasunean ematen den errealitate bat da eta honi aurre egiteko, gazteek bere egunerokoan berdintasunean oinarritutako ezagutza eta balioak sustatzeko gai izan behar dira. Horregatik, jarrera matxistak identifikatzea eta horien aurrean erantzun bat ematea garrantzitsua izango da.

Berdintasunaren garrantzia

Ikusten denez bientzat garrantzitsua den alor bat izan arren neskak garrantzia handiagoa ematen diote.

| | NESKAK | MUTILAK |
|--------------|---------------|----------------|
| MEDIA | 9,34 | 7,59 |

4. HURRENGO PLANERAKO PROPOSAMENAK

Atal honetan eragile ezberdinekin izandako elkarrizketa eta bileretan jasotako proposamenak jasotzen dira eta gaika antolatu dira, hau da, berdintasunerako gobernantza, erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera, balioen aldatzea eta emakumeen boteretzea eta indarkeria sexistari aurre egitea.

Bestalde, gazteen ekarpenak ere modu espezifikokan aipatzen dira, beraiekin landutako gaien inguruan emandako proposamenak jasoz, hots, jabekuntza/ahalduntzea, emakumeen aurkako indarkeria (indarkeria matxista), erantzunkidetasuna /zaintza, aniztasun sexuala /identitate aniztasuna.

BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA

- Berdintasun Mahai osatzea: eskaera behin baina gehiagotan egin da
- Aurrekontuak gehitu.
- Berdintasun saila herrian ezagutzera eman .
- Planaren informazioa herritarrei modu egoki eta ulergarrian zabaldu behar zaie. Plana ezagutzea beharrezkoa da.
- Udalak herri eta elkarteekin hartu-eman handiagoa eduki behar du.
- Urteko ekintzen programazioa.
- Berdintasun teknikariaren figura birplanteatu, zinegotzia, administratiboa, bulegoa. Berdintasunari dagokion tokia ematea “hirigintzan bezala”.
- Berdintasun plana ezin da bete teknikaria jardunaldi erdian dagoenean: jardun osoa behar du.
- Norbait bajaran egoteagatik udalak ezin dio erantzuteari utzi, bitartekari garbiak egon behar dute.
- Espaloi guztiak beharrezkoa, nahiz eta nahiko beharrezkoa egon. Kulturak sarbide onak ditu. Obra handi baten aurrean, sarbideak kontuan hartzea
- Saltokientzako laguntzak, sarrerak jaisteko.

ERANTZUNKIDETASUNA eta DENBORAREN ERABILERA

- Telelana eskaini eta erraztu, kontziliazioa lortze aldera.

- Herritarrentzako diru-laguntza gehiago, zaintza bermatuko duten haurtzaindegiak ... duela urte asko “kanguras” proiektuak egon ziren baina desagertu zen. Emakume asko ezin dira laneratu ez dutelako norekin utzi haurrak.

BALIOEN ALDATZEA eta EMAKUMEEN BOTERETZEA

- Sentsibilizazio kanpainak herri mailan.
- Emakumeak dituzten arazoak, kezkak, proposamenak ... jasotzeko bideak ireki.
- Emakumeak ahalduntzeko programa osatu.
- Emakumeek herriko historian betetako rolaren errekonozimenduan lanean jarraitu behar da.
- Emakume etorkinekin lan egitea, hauen ahalduntze aldera; beste herrietako talde multikulturalen antzera.
- Emakumeen etxea.
- Maskulinitate berriak lantzeko tailerrak.
- Berdintasunean formakuntza behar dute: azken 4-5 urtetan behin bakarrik egin du udaletxeak berdintasun formakuntza kirol taldeentzat
- Jaietan genero ikuspegia txertatzen jarraitzea.
- Ikastetxeei begira, parekidetasuna oinarri izango duen hezkidetzak eskolak sortu behar dira. Dinamizatzaile bat jarri beharko litzateke udaletik bi ikastetxeetako, hezkidetzako lanak egiteko: patioak, komunak ... diagnostikoa egin, berrantolatu, hezkidetzak plangintza dinamizatzeko dinamizatzaile bat kontratatu udaletxetik Hezkuntza mailan.
- Sentsibilizazio eta prestakuntza handiagoa behar da LGTBI+ kolektiboari dagokionez edozein langile eta politikarientzat eta herritarrentzat.

INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEA

- Erantzun instituzionaleko Lezoko Protokoloa: berritu, zabaldu.
- Indarkeria Matxistako Protokoloen inguruan formakuntza eskaini: bakoitzak zertarako balio duen jakitea, norberaren egin beharra zehaztea, eragileei helaraztea, parte hartze prozesua abiatzea.
- Autolaguntza taldearekin jarraitu behar da bailara mailan. Parte hartze handia dago indarkeria jasan duten emakumeekin. Dinamizatzaile batekin aritzen dira. Ahalduntzearekin lotutako ekimena da. Udaletik ere hona bideratzen dituzte emakumeak eta lagungarria zaie.

DBH 4. MAILAKO GAZTEEN EKARPENAK

JABEKUNTZA /AHALDUNTZEA

- Hobetzekoa
 - Emakumeen askatasun sexuala bermatzea
 - Gorputzen onarpena lantzea
 - Tabuak apurtzea
 - Autoestimu tailerrak antolatzea emakumeentzat
 - Nesken artean babestera ikasi, gure artean ez kritikatu.
- Nola?
 - Txikitatik hezkuntza sexuala jasoz. Sexualitate tailerrak
 - Tailerren bidez estereotipoak apurtuz
 - Emakume politikoei ahots gehiago ematen
 - Gelan hezkuntza sexuala sustatuz
 - Neskak neskekin hitz egiteko espazioak antolatuz

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

- Hobetzekoa:
 - Emakumeei bidea erraztea eta segurtasuna bermatzea denuntzia jartzerakoan
 - Salaketen kontrol gehiago
 - Emakumea zaindu
 - Indarkeria normalizatzea saihestea
- Nola?
 - Etxebizitza eta diru laguntzak eskainiz emakumeei
 - Hitzaldiak eginez
 - Legeak aldatzeko lanketa bat eginez
 - Mutilei hezkuntza tailerrak emanez
 - Emakumeen testigantza ez baldintzatuz

- Herrian gertatzen diren egoerak salatuz behin eta berriro

ERANTZUNKIDEZUNA /ZAINZA

- Hobetzekoa:
 - Emakumeek eta gizonetakoek ordu berberak lan egitea etxean
 - Ohiturak aldatu
 - Betebeharrak banatu hasieratik
- Nola?
 - Mentalizatzeko kanpainak egin, txikitatik erakusten
 - Diru laguntzak eman pertsona dependienteak zaintzeko
 - Publizitatean eredu desberdinak ikusarazi
 - Rolak aldatzeko lan egin
 - Enpatia landu
 - Lehen hezkuntzatik etxeko lanak egiten ikasi
 - Gizonetakoekin inplikazioa landu tailerren bidez

ANIZTASUN SEXUALA /IDENTITATE ANIZTASUNA

- Hobetzekoa:
 - LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako diskriminazioa desagertzea
 - Formakuntza gehiago behar da
- Nola?
 - Kontzientziaziorako tailerrak eman txikitatik
 - Diskriminazioaren aurkako kanpainak
 - Trans prozesutik pasa diren pertsonak eskolara ekarri eta euren historia konpartitzea.

5.ONDORIOAK

Oro har, betetze-maila ez da izan oso altua. Gaiarekiko interesa eta konpromiso sendoa oraindik ez dela lortu esan ahal da. Hala ere, udaleko hainbat arlotan genero ikuspegia txertatu dute baina oraindik genero ikuspegia asko landu behar da departamentu guztietan, kultura eta hirigintzan esaterako.

Arlo guztiek barneratu behar dute berdintasuna denon funtzioa dela eta badirudi kontu asko berdintasun arloari soilik egozten zaizkiola.

Hala ere, urteen perspektibarekin ikusita, udalean ekimen ugari eta estrukturalak egin dira II. Planarekin alderatuta, besteak beste, berdintasun teknikaria dago, aurrekontu propioa du eta koordinaziorako egiturak daude.

Beste konstante bat Planak herrian izan duen inpaktu txikia da. Gutxi ezagutzen da eta ez dira programarik landu emakumeen jabekuntzarako.

Oraindik behar handia dago egiteko eta hurrengo landu eta indartu behar da:

- udal politika eta programetan genero ikuspegia txertatzea
- pertsonen sexuaren arabera egotzitako genero estereotipoak eta rola eraldatzea
- emakumezkoen boteretze-prozesuak laguntzea
- udal, enpresa zein herritarren artean kontziliazio erantzunkidearen zein zaintzaren etika bultzatzea
- indarkeria matxistaren inguruan ezagutza eta sensibilizazioa handitu eta biktimekiko arreta hobetzea

COVID-19aren ondorioz, azken aldiko osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi garrantzitsuena gertatu da, eta agenda eta lehentasun politiko eta sozialak aldatu dira mundu osoan.

Pandemia desberdin ari da eragiten emakumeengan eta gizonengan eta datuek erakusten digute emakumeek eta neskek arrisku handiagoa dutela krisi honen ondorio negatiboen aurrean eta horren harira, Eudelek, Emakundek eta beste zenbait erakundek herri-erakundeen konpromiso sendoa eskatu eta berdintasun politikak eta zerbitzuak indartzeko deia egin dute. Premiazkoa da genero-ikuspegia txertatzen duten neurriak hartzea III. Planaren indarraldian, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideen erabileran eta berdintasunerako bidean atzera egitea saihesteko.